

Kultura

Worth It musika taldea: "Taula gainean gaudenean, jendeagaz konexio edo enpatia bat sortzen saiatzen gara". > 11



eskolara
buzetta
2016



Garraio publikoan, duintasuna helmuga

Azken hiletan garraio publikoaren erabilzaileen kexak ugartu egin dira Durangaldean. Herritarren presio horrek eragin soziala eta politikoa eduki du, zerbitzuetan aldaketak eragiteraino. > 2-3

Bullyng-aren kontrako metodo berria eskualdeko ikastolatan

Bullyng-ari aurre egiteko Finlandiako Unibertsitateak garatuta duen KiVa programak emaitza positiboak eman ditu Finlandian bertan zein Europako beste hainbat herrialdetan. Euskal Herriko 52 ikastolatan metodologia hori txertatuko dute 2017tik aurrera. Tartean, LH eskaintzen duten Durangaldeko hiru ikastolak daude: Kurutziaga, Andra Mari eta Txintxirri. > 9 Gehigarria

“Aranda de Dueroko kontzentrazio eremura bota gintuzten, lanera”



Jesus Uriarte | Izurtzan omendua > 10

DHEO DURANGO
Hizkuntza Eskola Ofiziala
Escuela Oficial de Idiomas

Matrikula zabalik
On-line

1. fasea: irailaren 1etik 19ra
2. fasea: irailaren 19tik urriaren 3ra
Urriaren 20an: presentziala

72,36€ ikasturte osoa

www.eoidurangoeheo.hezkuntza.net
94 620 33 42 - 94 681 66 45



Zaldibar > 7

Eskolako teilatuko obran azken ukituak ematen dabilta

Berriz > 6

Orain 79 urte fusilatutako herritarrak gogoratuko dituzte

Durango > 8

Andragunea Pinondotik Lariz Torrera lekualdatu dute

Atxondo > 9

Jaurilaritzak ADIFI emandako baimena auzitara daramate

“400 bat alegazio aurkeztu genituen, baina ez digute erantzun”

Nekane Rozasek hamar urte daramatza Durangotik Gasteizerako autobusa hartzen, lanera joateko. Ez du uste zerbitzu duina denik.

Durangotik Gasteizera bidaiatzen duzu lanera joateko. Zelako esperientzia eduki duzu? Esperientzia txarra. Azkenaldian, egoera apur bat hobetu da; ez dakit etorkizuneko aldaketegi begirakoa izango den. Baina azkeneko urteak desastre hutsa izan dira. Beti matxurak; autobus zaharrak; neguan ez dago berogailurik eta udan ez dago aire giroturik; autobus bat hondatzen bada, ordezkorik ez;

gidari bat ez badago ordezkorik ez. Desastrea. Sarri autoa hartzera behartuta sentitu naiz.

Zerbitzu duina dela uste duzu? Ez. Autobusak eraman eta ekarri egiten gaitu, eta momentuz ez da ezer larririk gertatu. Baina, gaur egungo zerbitzu publiko bat da? Bada, ez, ez dut uste.

Arabako linea bat da. Baina ardura ez al dago Bizkaiko Aldundiaren esku ere?

Denen esku. Durangoko Udalaren aldetik inplikazio gutxi ikusi izan dugu. Entzun dut zerbitzu badagoela martxan, baina momentuz inplikazioa urria

izan da. Aldundia, berdin. Orain hiru aldundiak alderdi beraren esku daude, eta ez dakit horrek zerbitzu lagunduko ote duen. 400 bat alegazio aurkeztu genituen, baina ez digute erantzun.

Arazoa ez dago Durangon bakarrik...

Durangalde osotik Gasteizera joan gura baduzu, dagoen zerbitzu publiko bakarria da. Gainera, linea horrek Izurtza, Mañaria, Urkiola... ere zeharkatzen ditu. Urkiolako parke naturalerako garraio bide bakarria da.

Zer hobetu beharko litzateke? Orduetegi zabalagoa, eta hobeto



banatua egunean zehar. Orduetegi proposamen berria, adibidez, arabarrei begirakoa dela uste dut. Zerbitzu batzuetan bidaiak luzatuko liguke, Duranan eta Lukon sartuko delako, besteak beste. Autobusak berriztea ere

beharrezkoa da. Orain autobus granate bat eta arrosa bat ipini dituzte; berriak dira guretzat, baina ez dira autobus berriak. Urkiolan ez dakit zenbat aldiz gelditu behar izan diren autobusak, berotzearen ondorioz.



Urtarrilean sortu zen A-8ko bidesariaren kontrako plataformako kidea da Juan Karlos Poderoso. Bizkaiko Aldundiak aurkeztutako tarifa finkoaren aurrean, A-8a doakoa izan dadin eskatzen jarraitzen dute.

Diskriminatzailea eta gehiegizkoa deritzozue A-8ko bidesariari.

Bai. Durangaldeko eta Lea-Artibaiko herritarrekiko diskriminazio argia da. Dirua batzea du helburu bakarria. Bizkaiko

“Doakotasuna da helburua; izan ere, A-8a zergen bitartez ordaintzen dugu jada”

Aldundiak duela 13 urte amaitu zuen kontsezioa, eta *ad hoc* egindako lege batez ordain-saria kobratzen jarraitu zuten.

Tarifa finkoa aurkeztu du Bizkaiko Aldundiak A-8rako.

Bai, baina, ez dute argitu nola gauzatuko den. Gipuzkoako ereduari jarraitu diote. Egia da A-8a gehien erabiltzen dutenentzat onuragarria izango dela: 90-100 euro ordaintzetik 40 euro ordaintzera pasatuko dira. Hala ere, ordaintzen jarraitzen dugu, beraiek zein gainerakook. Beraz, diskriminatzailea izaten jarraitzen du. Doakotasuna da helburua; izan ere, A-8a zergen

bidez ordaintzen dugu jada. Aipatzekoa da Gipuzkoan 112 kilometroko autobideetatik 28,80 euro ordaintzen dela; Bizkaian, 52 kilometroetatik 40. Egunean, 29.000 ibilgailugaz, A-8a gutxi erabilia dago. Interbiaken zuloa ordaintzen ari gara gu.

2017ko urtarrilean jarriko da indarrean tarifa finkoa, ezta?

Hori diote. Hala ere, argi dugu mobilizazioengatik aurkeztu dutela tarifa finko hori. Otsailean eskatu genuen, baita sustapen ekonomiarako ahalduen Imanol Pradalesegaz batzar bat ere. Oraindik erantzunaren zain gaude. Ez du ematen herri

mugimenduek garrantzirik dutenik Aldundiarentzat.

A-8aren doakotasuna eskatzen jarraituko duzue?

Bai. Ez daukagu beste bizkaitarrek Bilbora autobidetik ordaindu gabe joateko duten eskubidea. N-634a da alternatiba, hirugarren mundukoa guztiz, eta Aldundiarentzat lehentasunik ez duena. Ireki berri da 300 milioi balio dituen Elorrio-Gerediaga autobidea — 12.000 ibilgailu hartuko ditu egunero—. Baina, egunean 23.000 hartzen dituen N-634an ez da inbertitzen. A-8an sartzeko dago planteatuta Elorrio-Gerediaga ere.

“Aurreko egoerara bueltatu bagara mobilizatu garelako izan da”

Ekainaren 15etik Durangaldeko herriak tarifazio zonalde berean daude berriro. Berrizko eta Zaldibarko erabiltzaileek protestak egin zituzten, Euskotrenek herri biok beste zonalde batean sartu zituelako. Alvaro Gutierrez berriztarra zen horietako bat.

Berriz eta Zaldibar 4. zonaldean sartu ditu berriro Euskotrenek, Abadiño (Traña) eta Durangogaz. Protestek izan dute beren eragina, ezta?

Bai. Adin eta pentsakera askotariko jendea ibili gara, eta aurreko egoerara bueltatu bagara mobilizatu garelako izan

da. Berriz eta Zaldibar beste zonalde batean sartuta, garestiagoa zen Berriztik Durangora joatea, nahiz eta Barik txartelagaz merkeagoa izan. Horren aurrean, elkarretaratzea egin genuen 50 bat lagunek. Bertan erabaki genuen trena hartu eta Durangoko geltokian protesta egitea. Joan-etorria ez genuen ordaindu. Gure protesta azaleratu gura izan genuen horrela.

Berrizko eta Zaldibarko udalak ere inplikatu izan dira.

Aldaketaren zergatia argitzeko Euskotreneko zein Bizkaiko Garraio Partzuergoko arduradunengana jo zuten udalak.

Euskotrenek arrazoitu zuen Aldundiak baduela lurraldea zonaldeka banatuta, eta garraio publiko osoa bateratzeko horretara egokitu zirela. Baina, Garraio Partzuergoak banaketa horri jarraitzea derrigorrezkoa ez dela esan zuen. Beraz, Euskotreni aurreko egoerara bueltatzea eskatu zitzaion.

Merkeago izan duzue Debara joatea, Abadiñora baino.

Hala da. Ez du zentzu askorik. Gainera, adibidez, Berrizen ez ditugun osasun zerbitzuetarako Durangora joatea dagokigu. Geltokian bertan ere nabarmen ikusten da: Bilborako trena har-



tzeko nasan askoz jende gehiago dago beti, Donostiarakoan baino. Euskotrenek ere jakin behar du hori, zenbat bidaiari doazen batera edo bestera. Bizkaibusek ere hartu beharko luke kontuan hori.

Ez da horrela?

Berriztik merkeago dugu Ondarroara edo Lekeitiora joatea, Traña-Matienara baino. Durango dagoen zonaldean egotea litzateke logikoena. Durangaldegaz dugu guk lotura naturala.

Urtero 188.000 lagun artatuko dituzte Osasun Zentro berrian

Astelehenean Jon Etxeberria Osakidetzako buruak zentro berria bisitatu zuen



Osakidetzako zuzendari Jon Etxeberria Osasun Zentro berria bisitatzen.

ZORNOTZA Joseba Derteano Astelehenetik irekita daude Osasun Zentroko zerbitzu guztiak. Osakidetzako zuzendari nagusi Jon Etxeberriak azpiegiturak bisitatu ditu eta langileekin batzartu da: “Pertsonen kalitatezko arreta bermatzea dugu helburu”, adierazi zuen azpiegitura berrietara egindako bisitan.

Bisitaren eta irekieraren harira, Zornotzan artatzen diren pertsona kopuruaren gaineko hainbat datu ere eman dituzte. Esaterako, guztira 46 profesional dabilta lanean, eta zerbitzu guztiak kontuan hartuta,

urtero 188.000 pertsonatik gora artatzen dira: Familiako Medikuntzakoak 82.460 dira eta 81.964 erizaintzakoak.

Osasun Zentroan udalerriko 2.700 haur inguru artatzen dira, eta, urtero, pediatriako 16.500 kontsulta izaten dira, gutxi gorabehera. Pediatriako eremuan, haur-kotxeetarako tokia daukan itxaron-gela dago.

Emakumeari arreta egiteko eremu berritua ere badago. Urtero 3.000 kontsulta izan ohi dituen ginekologia kontsultaz gainera, emaginen kontsulta bi—urtero 7.400 kontsulta pasa ohi dituztenak—, eta ama-hez-

kuntzarako gimnasioa ditu. Instalazio berrian azken belaunaldiko ekografoa daukate, baita kolkoskopioa ere.

Berritasunetako bat Birgaitzerako Zerbitzua—Terapia Unitatea (gimnasioa) eta medikuaren kontsulta dituen— da. Urtero, 700 paziente inguru artatuko ditu.

Azkenik, Etengabeko Arreta Gunea, zornotzarrei ez ezik (19.400 biztanle) Arratia bailarako biztanleei (13.600) ere irekita dago. Beraz, 33.000 lagunek erabili dezakete. Urtero, batez beste, 24.000 larrialdi artatzen dira gune honetan.

“Birgaitze gunea apala, baina praktikoa iruditzen zait”



Jesus Angel Eguskiza
Zornotza

Birgaitze Gunea da Osasun Zentro berriko nobedaderik handiena. Orain arte, Galdakaoko ospitalera joan beharra zegoen zerbitzu hori jasotzeko. Jesus Angel Eguskiza zerbitzu berriaren onuradunetako bat da. Adeitasun handiz, bere istorioa kontatu digu, eta zerbitzu berriaren gaineko iritzia eman digu.

Galdakaoko birgaitze gunea sarritan joan izan zara?

Abuztuko lehenengo astean hasi nintzen Galdakaora joaten, astean hirutan. Laneko istripu batean meseta tibiala txikitu egin nuen. Hortik errekuperatzeko darabilta birgaitze gunea.

Alde handia igarri duzu, asteon, Galdakaora joan beharrean zerbitzua Zornotzan bertan jasota?

Bai, alde handia. Orain arte birritan erabili dut, eta Zornotzan bertan bizi banaiz ere, ambulanzian eramaten naute. Osasun Zentrora joateko oinez 20 minutuan ibiltzeko moduan ez nagoela esan, eta ambulanzian mantendu didate.

Zelako zerbitzua jaso duzu? Artatzen nauen neska berria da niretzat, baina, aldi berean, ezaguna. Galdakaoko ospitaletik bistaz ezagutzen nuen. Azkenean, han dabiltzanak ez dira asko, eta Galdakaon zebilenetako bat etorri da hona.

Birgaitze guneako azpiegiturak egokiak iruditu zaizkizu? Material dena berria da. Altzariak apalak, baina praktikoa dira. Luxuari barik, erabilgarritasunari begira egin da dago. Hasierako egunetan suertatzen diren arazotxoak ere ikusten dira. Niri bizikleta estatikoan aritzea egokitu zait gaur (eguztina), eta arazoak ematen zituen. Baina, normala iruditzen zait, azpiegitura berria da eta gauzak apurka doituko dituzte.

Bestela, Osasun Zentroa bera zer iruditu zaizu?

Oso ondo dago. Harrera gunean jendea hartzeko leihatila gehiago ikusi ditut, esaterako. Iruditu zaidana da jendeak apurka ohitu egin beharko duela harrera guneko sistema berrira. Lehen ilara bat zegoen, eta horren arabera artatzen gintuzten. Orain zenbaki bat hartu beharra dago, eta batzuek ez dute oraindik sistema barneratu. Denbora kontua izango da. Galdakaon sistema berdina dago, eta ondo funtzionatzen du.

Ziztada gunearen eskaerak erantzunik ez

Aisialdia euskalduntzeko proposamenak “erantzunik ez” jarraitzen duela diote

ZORNOTZA J.D. Zornotzak ume eta gazteriarri bideratutako aisialdi eskaintza euskaraz jasotzeko zer aukera dagoen aztertu du Ziztada Guneak aurten. Aisialdiaren %70 erdaraz eta %30 euskaraz eskaintzen dela izan zen azterketako ondorio nagusia. Horregatik, apirilaren 26an eskaera ofizial bat egin zuten Zornotzako udalean. Eskaera horretan “euskara normalizatzeko urratsak ematea, eta, horretarako, udalagaz batera jardungo lukeen lan talde bat—herritarrez osatutakoa—eratzeko” proposatzen zuten “arloan hori euskalduntzen joan dadin”. Harrezkero, lau hilabate joan dira, eta “erantzunik

ofizial barik jarraitzen dugu”, adierazi dute ohar baten bidez.

Horregatik, “udalaren eta alkatearen utzikeria” salatzen dute. “Euskaraz bizitzeko eta bultzatzeko benetako pauso neurgarri eta eraginkorrak emateko garaia dela pentsatzen dugu”, gehitu dute Ziztada Guneak.

Udalagaz batera lanean jardungo duen herritarren taldea osatzea zen proposamenetako bat

Orue egoitzara auzo-taxian joateko diru-laguntzak onartu dituzte

Egoitzan bizi direnen ezkontideek jaso ditzakete udalaren diru-laguntzak

ZORNOTZA J.D. Joan zen astetik hasita, Igorco Orue egoitza soziosanitarioan erroldatuta daudenen eta bertan bizi direnen ezkontideek, ibilgailurik ez badute, diru-laguntzak jaso ahalko dituzte auzo-taxi zerbitzua erabilita.

Bonu baten bidez ordainduko zaizkio taxi-gidariari ibilbideak. Bonu horiek (10 bonuko taloia) Udaletxeko Zerga-bilketarako Bulegoan erosi ahal dira, banku-txartelaren bidez.

Auzo-taxi zerbitzua erregulatzen duen ordenantzen arabera, ibilbide bakoitzaren kostua 12 eurokoa da. Udalak 10 euroko diru-laguntza emango dio erabilzaile bakoitzari ibilbide bakoitzeko, ibilbide-kopurua 1 eta 50 artekoa bada; 6 eurokoa

kopurua 51 eta 100 artekoa bada; eta 4 eurokoa ibilbide bakoitzeko, kopurua 101 eta 150 artekoa bada. Gehienezko kopurua 150 ibilbidekoa da erabilzaile bakoitzeko.

Zerbitzu hori astelehenetik ostiralera ematen da, 07:30etik 19:00etara, urte osoan, abuztuaren izan ezik. Bidaiak erreserbatzeko, taxi telefonogunera (94 673 11 77) deitu behar da.



Zelaieta parkearen ondoan dagoen auzo-taxi gunea.

ALKIMAX

Alquilamos soluciones

LEHORREKO HAREA ISURTZEKO EKIPOA

ZERTARAKO: BERRIZTAPENAK, FATXADEN GARBIKETA,
OXIDOA KENTZEKO, DESUGERKETAK, EGURRAREN ZAHARTZEA...




NEURRIAK

Edukiera: 50 l.
Luzera: 800 mm.
Zabalera: 660 mm.
Altuera: 950 mm.
Pisua: 66 kg.

KONTSUMOA

Presioa 7 bar, eta 5 mm-ko
diametroko ahoa.

Aire kontsumoa:
1.300 l/min.
Urratzaile kontsumoa:
160 kg/ordukoa



Eitua industriagunea, 71C · BERRIZ · 946 824 550
Goiko Ibarra, 26 (Eroski ondoan) GERNIKA · 946 271 310
alkimax@alkimax.net

www.alkimax.net



Pasiotarren Eubako ikastetxeak 60. urteurrena ospatuko du

Irailaren 17an izango da; bazkaritarako izen-ematea irekita dago



Beratarzen direnek antzinako argazkien erakusketa ikusi ahalko dute.

ZORNOTZA J.Derteano

Datorren asteko zapatuan, irailaren 17an, 60 urte beteko dira pasiotarrek beraien ikastetxea zabaldu zutenetik Euban, Orueko tontorrean. Hasiera batean, apaiztegia izan zen. Ondoren, 70eko hamarkadan, ikastetxe bihurtu zen, eta 80ko hamarkadatik gaur egunera, Lauaxeta Ikastolagaz jarraitzen du.

Pasiotarren ikastetxeetatik igaro diren Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako, Nafarroako eta

baita Galiziako ehunka ikasle Euban biltzeko asmoa dute antolatzaileek urteurrena ospatzeko. 11:00etan elkartuko dira parrokiaren aurrean. Antzina-ko ikaskideekin sasoi bateko gomutak partekatzeke unea izango da. Hamaiketakoaren eta harrera ospakizunaren ostean, 12:00etan, argazki zaharren erakusketa bisitatuko dute; besteak beste, 60ko eta 70eko hamarkadetan hain ezagun egin ziren Eubako Euskal Jaien argazkiak jaso dituzte. Ondoren, atzera begirakotik gaur egunera etorri eta ikastetxeko azpiegiturak bisitatuko dituzte. Horrela, iragane-ko azpiegiturak gaurkoekin konparatzeko aukera egongo da. Beste hainbeste egin ahal izango du nork bere buruagaz ondoren. Taldeko argazkiak atera eta sasoi batekoekin alderatzeko aukera egongo da.

Euskararen garrantzia

Eubako ikastetxea 1956ko irailaren 14an ireki zuten, 110 ikasle-gez. Ondorengo 60 urteak hiru alditan banatu daitezke: Apaiztegiaren aldia, 1956tik 1969ra; San Gabriel Ikastetxearena, 1969tik 1981era; Lauaxeta Ikastolarena, 1981etik 2016ra.

Frankismoa indarrean zegoen sasoiaren euskara lantzeko eta sustatzeko egindako lana

da ikastetxearen ibilbidea definitzen duen ezaugarrietako bat. Euskararen mundu debekatu hura lantzeak (Jose Mari Larrarte eta Koldo Sarasolagaz, esaterako) gerora euskal kulturaren ezagunak izan diren izen batzuk eman zituen: Xabier Mendiguren, Jose Lizarralde eta Joxe Mari Iriondo, besteak beste.

1963an, bost urte iraungo zuten Bidez euskara hutsezko aldzkaria argitaratzen hasi ziren. Euskal kultura garatzea zuen helburu, euskara idatzizko komunikazioaren eta heziketaren ardatz hartuta.

Euskal Jaiak

1959tik 1979ra ezagun egin ziren San Pablo Gurutzetako pasiotarren sortzailearen eguna ospatzeko Euskal Jaia ospakizunak. Jarduera erlijiosoz gainera, euskal kulturaren inguruko abeslari, bertsolari, dantzariak... ekartzen zituzten, eta egun arrakastatsua izaten zen, oro har, giro euskalduna bizi zuten euskaltzaleen artean. Esaterako, 1964an, pasiotarren ikastetxearen ingurua jendez gainezka azaldu zen Basarri, Lazkao Txiki, Azpillaga eta Mugartegiren bertsoak entzuteko. Lupe, Gontzal Mendibil eta beste musikari batzuk ere ekarri zituzten.

Astarloa kalea, proba lez oinezkoentzat

Hilabeteko probaren ostean erabakiko dute Pedro Pablo Astarloa behin betiko itxi ala ez

DURANGO M.O.

Pedro Pablo Astarloa kalea oinezkoek bakarrik erabili ahal-ko dute hilabeteko epean, proba modura. Udalak herriko trafikoa lasaitzeko garatutako ildoaren baitan kokatzen da. Balizko onurak eta arazoak aztertu ostean, trafikorako behin betiko itxi ala ez erabakiko dute.

Eskola Agenda 21eko ikasleek proposatutako neurria

da. Hain zuzen ere, Jesuitak ikastetxeek. Aitor Larruzea teknikariak esan du goizeko orduetan 5.000 oinezko pasatzen direla kale horretatik, eta 3.000 auto egun osoan.

Udalak auzokideekin eta merkatariekin berba egin du. Kanean, aulkiak eta jardinerak ipiniko dituzte. Autoz Kurutzia-gara joan gura dutenak Arandono Torretik sartu ahal dira.



Goizeko orduetan 5.000 oinezko pasatzen dira bertatik.

Durango Andragunea martxan dago Lariz Torren

Gazteentzako autodefentsa saioa emango dute

DURANGO M.O.

Andragunea martxan dago, lekuz aldatuta, Pinondotik Lariz Torrerara. Horrela, espazio propioa edukiko du, mugimendu feministak aspalditik egindako eskaria beteta. Atzo, Lariz Torren bertan aurkeztu zituzten aurtengo Andraguneko ikastaroak.

Ikasturte honetarako no-berdadeetako bat neska gazteei begira emango duten autodefentsa ikastaroa da. Orain arte,

emakume guztiek batera zuten ikastaro hori aukeran, baina gazteekin berezia egiteko beharra ikusi dute antolatzaileek.

21 ikastarotan eman ahal da izena; 10 euskaraz izango dira, eta 11 gaztelaniaz. Guztira, 430 bat plaza eskainiko dituzte, eta irailaren 23an amaituko da inskripzio epea. "Heziketa eta kontzientziazioa parekidetasunera heltzeko giltzak dira", Pilar Ríos alkateorde eta berdintasun zinegotziaren ustetan.



Ríos eta teknikariak, atzo, aurkezpenean.

Ehiza postuak zozkatuko dituzte, hilaren 16an eta 30ean

MAÑARIA M.O.

Mugarra ateneo zinegetikoak Saibigain-Iturriotz pase lerroko ehiza postuen zozketak iragarri ditu datozen asteetarako. Hain zuzen ere, hilaren 16an eta 30ean egingo dituzte, deialdi zabalean. Hilaren 16an, irail eta urri bitarteko baimenak egongo dira zozketan; 20:00etan udaletxeko lokal sozialean egingo dute zozka. Ehiza elkarterko bazkideen kasuan, irailaren 20an burutuko dute, 19:00etatik aurrera.

Azarorako eta abendurako baimenak lortu ahal izateko, irailaren 30an izango da lehen hitzordua, 20:00etan. Bazkideen txanda urriaren 18an etorriko da.

Kontrolpeko ehiza

Bestalde, kontrolpeko ehizari dagokionez, beste data batzuk iragarri dituzte. Urriaren 6an eta 20an, azaroaren 24an eta abenduaren 22an izango dira zozketak, eta 19:00etan hasiko dira guztiak, elkarterko kideek azaldu dutenez.

Irailaren 16ra arte eman daiteke izena Zapatublai programan

ZALDIBAR I.E.

Irailaren 16ra arte eman daiteke izena ume eta gazteei aisialdia euskaraz gozatzea eskaintzen dien Zapatublai ekimenen parte hartzeko. Aisialdian euskararen erabilera bultzatzeko helburuz, udaleko euskara zerbitzuak antolatzen du programa hori, eta udal txean eman daiteke izena.

Urriaren 1ean hasi eta ekainaren 17an amaituko da Zapatublai programaren ikasturtea

Urriaren 1ean hasi eta ekainaren 17an amaituko da Zapatublai-ren ikasturtea. Aurreko urteetan bezala, hamabostean behin —zapatu arratsaldean, hiru orduz— elkartuko dira bertan izena ematen duten umeak. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehenengo zein bigarren ziklokoen taldeak osatuko dituzte.

Eskolako teilatuko obran azken ukituak ematen dabilta

Lehen Hezkuntzako eraikinaren hezetan arazoak konpontzeko lanetan ibili dira udan zehar

ZALDIBAR Itsaso Esteban Eguaztenez hasi zuten ikasturte berria Zaldibarko eskola publikoan, eta abuztuaren 27ra-ko amaituta egotea aurreikusita zegoen Lehen Hezkuntzako eraikineko —Partenoia izenagaz ezagutzen dena— obrari azken ukituak ematen dabilta langileak. Eskolako ohiko jardunean trabarik ez egiteko, udan ibili dira eraikin horren teiltuan konponketa lanak egiten, eta ikasle eta irakasleek kurtso berria abiatu dutenerako, lanen parterik handiena amaituta egon da, baina azken ukituak irailean emango dizkiote obrari.

Udalaren eta eskolaren urteetako eskaria izan dena gauzatu du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak Lehen Hezkuntzako eraikinean obra hau burututa: eraikinak sabaian zeuzkan arrakalak, itoginak eta hezetan arazoak konpondu dituzte.

Zaldibarko Udalak duela bi urte iragarri zuen Hezkuntza sailak 2015. urtean burutuko zuela obra hau. Urtebeteko atzerapenagaz gauzatu dute, beraz.

Lehen Hezkuntzako eraikinak sabaian zeuzkan arrakalak eta itoginak konpondu dituzte

Duela bi urte teiltuaren eta eraikinaren hezetan arazoak konpontzeko obra honen iragarpena egin zutenean, eskolan dagoen espazio faltari erantzuna emango dion handitzearen beharraz ere jardun ziren udaleko ordezkariak. Arantza Biegorri alkateak asteon berretsi du, Lehen Hezkuntzako eraikin horren espazio faltari erantzuteko obra egiteko konpromisoa



Uztailean eta abuztuan egin dute lanen parterik handiena.

2014tik hartua duela Jaurlaritzak, eta proiektua ere egin daukala. “Ikasturte honetan gela guztiak dauzkagu beteta, eta

datorren ikasturterako espazio falta izango dugula aurreikusten dugu”, azpimarratu du Zaldibarko alkateak.

Kulturarteko Jaian batuko den dirua, errefuxiatuei jaten emateko

Kainabera elkarteak Grezian lanean dabilen Zaporeak taldeari lagunduko dio

ELORRIO M.O.

Kainabera elkartearen eskutik, Kulturarteko Jaia ospatuko da domeka honetan, Elorrioko Ferixa Nausikoen barruan. Hainbat kulturarteko jaiak dastatu ahal dira bertan, eta batutako dirua errefuxiatuei laguntzeko izango da. Hain zuzen ere, Zaporeak proiektuari emango diote dirua; Greziako Chios irlan,

hara ailegatzen diren errefuxiatuei jaten ematen dien euskal talde bat da Zaporeak.

Egunean 1.700 jatordu prestatzen dituzte gutxi gorabehera Zaporeak taldeko boluntarioek, duela zenbait hilabetetik hona, gainera. Elkartasun keinu hori ez da batzuen gustukoa; azken egunetan jakin denez, errefuxiatuen aurkakoez Zaporeak

proiektua saboteatu dute, euren instalazioetan kalteak sortuz.

Taldeko kide batzuk Elorrioren egongo dira domekan, euren egitasmoaren berri emateko.

Bihar, sukalkia

Bihar Sukalki Eguna ospatuko dute Elorrioren. Joan zen asteburuan hasitako jaia amaitzeko asteburu bete dator, beraz.



Domekan Elorrioko Kulturarteko Jaia etorriko dira Zaporeak taldeko kideak.

Udaltzain postu bi betetzeko oposaketa martxan dago

ELORRIO J.G.

Elorrioko Udalak Lanpostu Eskaintza Publikoa (LEP) argitaratu du bi udaltzain postutarako. “Lanpostu publikoak egonkortzeko bidean pauso bat” dela esan dute udal arduradunek.

Izena emateko epea hasita dago, eta aurkezteko baldintzak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean jasota daude. Besteak beste, 18 urte betetik izatea, bigarren hezkuntzan graduatua izatea, eskola-graduatu izatea, lehen mailako lanbide heziketako titulua edo parekoa izatea, gizonezkoetan gutxieneko garaiera 1,65 zentimetrokoa izatea eta emakumezkoetan 1,60 zentimetrokoa izatea dira baldintzetako batzuk.

Oposizio aldiari dagokionez, lehenengo proba teorikoa izango da, eta bigarrena fisikoa. Hirugarren proba ezagueratik praktikoei dagokiena izango da. Laugarrena, berriz, test psikoteknikoak. Bukatzeko, bosgarrena, euskarari dagokiena izango da.

Udal webgunea berriztu, eta turismokoa sortu dute

ELORRIO M.O.

Elorrioko Udalak webgune berriak sareratu ditu Interneten, “elorrirrekin zein herrira datozen bisitariekin online bidezko harremanak sendotu eta garai berrietara egokitzeko asmoz”.

Bestalde, turismo arloari begira, ‘www.elorrioturismo.eus’ webgunea sortu dute

Udal webguneari dagokionez, .eus domeinura aldatzeaz gainera, orain arteko bertsioaren berrazterketa gauzatu dute udal langileek. Ez hori bakarrik, gardentasunari lotutako atala ere zabaldu dute.

Bestalde, turismo arloari begira, www.elorrioturismo.eus webgunea sortu dute. Herriko eskaintza turistikoa eta kulturalaz informatuko dute, bisitarien erraztasunak emateko helburuz.

Herrigunean zuntz optikoa jarriko dute

Datorren astean obra zibila abiatuko dute

MALLABIA Jone Guenetxea Mallabiko herrigunean zuntz optikoa jartzeko lanei ekingo die udalak datorren astean. Lan hauek fase bi izango dituzte. Lehenengo, udalak obra zibila garatuko du. Ondoren, Ermuako Udaleko Promosa enpresa publikoak zuntz optikoa ezarriko du. Goitondon ekingo diete lanei, zanga bat zulatuz. Handik, herrigunera ekarriko dute eta argiaren instalazioak baliatuko dituzte.

Elkarlana helburu

Mallabiko eta Ermuako Udalak hitzarmena sinatu dute zuntz optikoaren proiektua martxan jarri ahal izateko. Mallabiko Udalak obra zibilera 85.000 euro

bideratu ditu. Ermuako Promosa enpresa publikoak, berriz, 65.000 euro inbertituko ditu.

Auzoetara antena bidez

Zuntz optikoa herrigunetik auzoetara bideratzea nekeza izango litzatekeela aitortu du Igor Agirre alkateak. Horregatik, auzoetan internetera lotura izan dezaten, irrati-frekuentziagaz antena bidezko lotura ezartzeko asmoa dute.

Mallabiko eta Ermuako udalek hitzarmena sinatu dute zuntz optikoaren proiektua gauzatzeko

Santa Katalinako jaia ospatuko dute hilaren 18an

GARAI M.O.

Santa Katalina ermitako jaia ospatuko dute hurrengo domekan, irailaren 18an. Goizean zehar izango dira ekitaldiak, eta festaz gozatzeko aukera eskainiko diete auzotarrei zein inguruetatik datozenei.

10:30ean hasiko dira ekitaldiak, mezagaz. Domeketan Garaiko herrigunean ematen den meza lekuz aldatu eta hantxe egingo dute, Santa Katalinako ermitan.

Mezaren ostean dantza saioa eta luntxa egon ohi dira bertaratzen direnen gusturako. Dantza saioan, gainera, auzoko dantzarien parte hartzea sustatzen dute.

Santa Katalinako jaia aspaldikoa da, baina duela hamabost bat urte berreskuratu zuten, etenaldi baten ostean.

Edateko uraren zentzuzko erabilera egiteko deia egin dute

OTXANDIO J.D.

Otxandioko ur depositua Oletako Atzin inguruan dagoen errekatik hornitzen da. Uda lehorra izan da, eta errekatiko emariak behera egin duela ikusita, udalak herritarrei uraren erabilera "zentzuzkoa" egiteko eskatu die. Ez dela alerta egoea bat argitu du Urtzi Armandariz alkateak, gehiago dela prebentzio neurri bat.

Herrian zehar itsatsitako bandoak herritarrei gogorazten die "erabat debekatuta dagoela edateko uraz ortuak eta lorategiak ureztatzea eta kotxeak garbitzea". 150 euroko zigorra jaso dezake araua hausten duenak. Antzerako kasuak ez dira hain ezohikoak. Noizerik noizera eman izan dira uda lehorretan.

Orain dela 79 urte fusilatutako herritarrak gogoratuko dituzte

11:00etan hasiko dira ekitaldiak, Oroimenaren Bidean oroigarrian



Irailaren 11ko iazko ekitaldia.

BERRIZ M.Zuazubiskar

1936ko irailaren 11n, Berrizko alkatea zen Felipe Urriaga eta Jose Agirre herritarra fusilatutak zituzten indar frankistek. Hauek ez ziren bakarrak izan; kolpistek Gregorio Urkijo eta Fermin Aranguren ere fusilatutak zituzten, eta Agustin Milikua herritarra hil egin zen kartzelan, gaixorik.

Orduz geroztik, horiek eta, oro har, frankismoa sufritu zuten lagunak omendu eta gogoratzeko eguna izaten dute irailaren 11n Berrizen.

Beraz, domeka honetan, Berrizko Udalak eta Berriz 1936 Gogoratzen Kultur Elkartek antolatuta, gomuta eguna izango dute.

11:00etan, udaletxeko parkean jarrita dagoen Oroimenaren Bidean oroigarrian emango diote hasiera ekitaldiari.

Ondoren, urtero lez, dantzariak, musika eta lore-eskaintza egingo dituzte, eta nobedade lez, aurtun lore-eskaintzaren momentuan, herritar batek eskuz joko ditu kanpaiak.

Bestalde, egia, justizia eta

erreparazioa lortze bidean, Berrizko Udalak, alderdi politiko guztien adostasunagaz, aurrerapauso bat egingo du. Argentinako kereilan sartzeko akordioaren aurkezpena egin, eta deklarazio instituzionala irakurriko dute.

Ekitaldi instituzional hau udaletxearen aurrean egingo dute. Ekitaldia bukatu ostean, Doinuzahar abesbatzak, urtero lez, kantaldia eskainiko du, eta bertaratzen direnei herritarrei aperitibo bat emango zaiela jakinarazi dute

Kofradi Eguna ospatuko dute Laixiarren, domekan

IURRETA A.Basauri

Urteroko hitzordua dute Iurretako kofradiek domekan: XLIII. Kofradi Eguna ospatuko dute, Laixiar zelaian. Urteko kontuak argitzeko elkartzen dira herriko sei kofradiak (San Marko, Faust, Goiuri, Santa Maña, Oroz-

keta eta Iurreta) irailean. Jai giroan ospatzen dute egun hori Laixiarren.

Mezagaz hasiko dute egitaraua, 12:00etan. Ondoren, Kofradien Batzar Nagusia hasiko dute. Kofradi bakoitzak urteko kontuen berri emango du bertan, Bixente Narbaiza Iurretako kofradien lehendakariak azaldu duenez. Bertaratuko diren iurretarrak bazkaritarako elkartuko dira ondoren. Arratsalderako umeentzako jolasak eta erromeria ere antolatzen dituzte kofradiek.

Ehunka iurretarrak batu ohi dira Laixiarren Kofradien Eguna ospatzeko. Narbaizak gogoratu duen moduan, 250 bat lagun elkartzen dira. Kofradia guztietako jendea batzen duena izaten da Laixiarren ospatutakoa.

Mezagaz hasiko dute egitaraua, eta, ondoren, Kofradien Batzar Nagusia egingo dute

MATERIAL DE CONSTRUCCION MACOBER

Eraikuntzarako materiala
MACOBER

Zeramika eta gresa

Eitua Industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

Podinara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

Ingurumen sailak ADIFi emandako baimena auzitara eramango du udalak

AHTaren eraikuntza lanetako hondakinak Solatxon botatzeko baimena eman zuen Jaurlaritzak



Atxondo eta Elorrio artean dago Solatxo lez ezagutzen den eremua.

ATXONDO I.E. / J.D.

Abiadura Handiko Trenaren eraikitzaileari (ADIF) Solatxo inguruko lursail batean betelan egiteko baimena eman zion 2014an Eusko Jaurlaritzak, trenaren eraikuntzan sortutako hondakinak bertara bota ditzan. Atxondoko udal gobernuaren ustez, lursail hori babestu beharreko eremua da. Asteleheneko udalbatzarrean, udal gobernuko EH Bilduko bost ordezkarien aldeko botoagaz erabaki zuten Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailaren baimenaren kontra ad-

ministrazioarekiko auzibidea abiatzea. Auzitara jotzearen kontrako botoa eman zuten, aldiz, EAJko hiru zinegotziek.

Dabid Cobos alkateak gogoratu duenez, baimen horren tramitazioan "hainbat irregularitasun daude", eta baimena bertan behera uzteko eskatu zion Atxondoko Udalak Jaurlaritzari, martxoan. Jaurlaritzako Ingurumen sailak, baina, ez dio Atxondoko Udalaren eskariari ezelako erantzunik eman, eta horregatik erabaki du EH Bilduk gaia auzibidean jartzea.

Alkatearen berbetan, behin-behinekoak izan dira Jaurlaritzak ADIFi eman dizkion baimen horiek, eta hainbat aldiz luzatu dizkio: "Behin-behineko baimenak eman dizkio, baina hainbat dokumentazio faltan zegoela ere adierazi izan dio behin eta berriz Jaurlaritzak ADIFi, eta hauek ez dute dokumentu bat ere gehiago aurkeztu". "Mesede baten atzetik beste bat egin dio Jaurlaritzak ADIFi".

384.517 metro kubiko

Orain harizti bat dagoen Solatxo inguruko lursailean 384.517 metro kubikoko betelana egitea eta horretarako bertatik igarotzen den erreka desbideratzea da Eusko Jaurlaritzak baimendu duena. Asteleheneko udalbatzarreko erabakiaren ondorioz, baina, Atxondoko Udalak auzitegiaren errekurrituko du.

Bederatzi talde batuko ditu Ezpadantzari Egunak

Bihar arratsaldean 49. aldia ospatuko dute plazan

IZURTZA J.D.

Zapatu arratsaldean Ezpadantzari Egunaren 49. aldia ospatuko dute, Izurtzan. Durangaldeko 9 dantza taldek parte hartuko dute: Iurreta, Izurtza, Garai eta Mañaritik talde bana joango da, Berriztik Ireminiñe eta San Lorentzo dantza taldeek parte hartuko dute, eta Durangotik Tronperri, Txoritxu Alai eta Kriskitin taldeek.

19:00etatik aurrera Dantzari Dantza eta soka dantza eraku-

tsiko dituzte. Saioan zehar Mendigain dantza taldeko hainbat kide omenduko dituzte: Juan Antonio Aroma, Alberto Garate, Itziar Iriondo, Pili Arrazola, Maite Zubillaga eta Inma Gorrotxategi. Ostean, herri afaria eta Firin Faran taldearen erromeria egongo dira.

Durangaldean mendeetan zehar iraun ondoren, Dantzari Dantza eskualde honetatik Bizkaiko beste lurraldeetara zabaldu zen XX. mende hasieran.



2009an Izurtzan egindako Ezpadantzari Eguna. Gerediaga Elkarte

Baserri egunaren 5. edizioa, irailaren 16an

ABADIÑO I.E.

Askotariko ekintzak izango dira irailaren 16an Traña plazan antolatuko duten V. Baserri Egunean. Aurreko urteetan bezala, arratsaldez egingo dituzte ekintzak, 17:00etatik 20:00etara. Bertako produktuen azoka egingo dute 17:00etatik 19:00etara, eta birziklatzen edo serigrafiatzen ikasteko aukera izango dute tailerretan parte hartzen dutenek. Bestalde, V. Txapel jaurtiketa lehiaketa jokatu dute, 19:00etan.

Irailaren 16ko Baserri Egunean antzera, Alluitz Natura enpresak eta Abadiño Udalak antolaturiko ekintza da irailaren 18an lehenengoz egingo duten Transhumantzia herritara ere. Atxartetik abiatuko dute, 10:00etan, Urkiola helmuga izango duen I. Transhumantzia herritarra. Eguerdian Txakurzulon geldialdi bat egin ostean, Urkiolara 12:30ean ailegatzea dute aurreikusita. Ondoren, 14:30ak arte, umeentzako tailerrek eskainiko dituzte.

Euskara ikasleek diru-laguntza eska dezakete

ABADIÑO I.E.

Irailaren 30era arte, Errota kultur etxean edo udal Mediatekan eska dezakete udalaren diru-laguntza 2015-2016an euskara eskolara joan direnek. Eskari

orriagaz batera, dokumentu hauek aurkeztu behar ditu udalaren diru-laguntzaren onuradun izan gura duenak: NAN-en fotokopia, matrikula ordaindu izanaren agiria, kontu zenbakia eta euskaltegiaren ziurtagiria. Euskaltegiaren ziurtagiri horren bitartez frogatuko du diru-laguntzaren eskatzaileak ikastaroetan gutxieneko assistentzia (klaseen %80) bete duela.

Hauteskunde kanpaina gaur abiatu dute

DURANGALDEA J.D.

Gaur hasi dute hauteskunde kanpaina. Datozen 15 egunetan euren programak azaltzeko baliatuko dituzte alderdiek. Kanpaina koordinatzeko eta harrera gune lez eskaintzeko EAJk eta EH Bilduk lokal bana hartu dute Durangon.

Eusko Alderdi Jeltzaleak Durangoko Artekale 14 zenbakian alokatu du irailaren 25eko hauteskundeei begirako lokala. Iñigo Urkullu lehendakaria bertan zela, eguaztenean inauguratu zuten lokala. Edozein zalantza argitu edo argibide eskatzeko bertara joan daitezke durangarrak.

EH Bilduk martitzenean inauguratu zuen hauteskundeei begira hartutako lokala, Durangoko Zeharkalea kaleko 1 zenbakian. Jasone Agirre — Bizkaiko zerrendaburua — eta Maddalen Iriarte — Gipuzkoako bigarrena — batu ziren inauguraziora.

DURANGALDEA ASTEON

Begirale eta zuzendari ikastaroen eskaintza

DURANGALDEA > Amankomunazgoko Euskara Zerbitzuak eskaintzen dituen begirale eta zuzendari ikastaroetan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago, irailaren 16ra arte. Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibarko herritarrek doan jaso ahalko dituzte ikastaroak. Informazioa: 94 623 25 22 telefonoan, edo euskera.mdurango@bizkaia.org helbidean.

541.417 zenbakiak jaso du 24. iPad elektronikoa

DURANGO > Neu Be dendan emandako 541.417 zenbakidunaren jabeak irabazi du Salerosketan Be Euskeraz ekimenean zozkaturiko 24. iPad elektronikoa. Irailaren 1ean egin zuten zozketa horretan, Landako Optikan emandako 538.558 zenbakia suertatu zen, bestalde, ordezkoa. Salerosketak euskeraz egiten dituzten artean iPad bat zozkatzen du ekimen honen barruan ITG taldeak.

Elorrioko 'souvenir'-a aukeratzeko lehiaketa

ELORRIO > *Elorrioko aztarnak* lehiaketa antolatu du udalak, herriko oroigarri edo *souvenir*-a aukeratzeko. Deialdia Euskal Herriko artisauei zuzendu diete, eta lanak urriaren 31ra arte aurkeztu daitezke. Oroigarri irabazleak turismo bulegoan eta herriko dendetan salduko dituzte, herrira datozen bisitariek Elorrioko erakusgarri bat etxera eramateko aukera izan dezaten.

IRITZIA

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOK ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

> Berbaz

Jesus Uriarte | Euzko Gudarosteko kidea. Izurtzako jaietan omenduko dute | Dima, 1916



“Gauetz trintxerak egiten genituen, eta egunez lo”

Gerra Zibilean trintxeretan lanean ibili zen Uriarte, eta preso hartuta ere lanera behartu zuten; 100 urte beteko ditu, eta omenaldia jasoko du Izurtzan

> BERBAZ Markel Onaindia
Domeka eguerdian, 13:30 bueltan, Jesus Uriarte omenduko du Izurtzako Udalak, herriko jaietako egitarauaren barruan. Izan ere, 100 urte beteko ditu astelehenean, hilaren 12an. Dimako Oba auzoan jaioa, Izurtzara ezkondu zen, eta bertan bizi da geroztik, Basterretxe baserrian. Burua argi dauka oraindik, eta kazetariagaz solasaldirako prest agertu da bere etxeko atarian. Pasadizo ugari du kontatzeke, eta tartean, Gerra Zibilean bizi izandakoak daude. Hala ere, berba gutxi egin izan du gaiaz orain arte, bere akordua ona ez den seinale. Memorian eraman du, eta lerrootan kontatzen ditu gertaera batzuk. Domekako omenaldira joango da, baina umil hartu du eskaintza; ez du protagonista izan gura. 100 urtera ailegatzeko sekretu gutxi, gerrako eta gerraosteko bizimodu gogorra lanean eman duenaren begiradatik.

Gerra Zibilera joan zinen gartzetan. Baina, eraman egin zintuzten; zuk ez zenuen joan gura, ezta? Nik zer gurako nuen, bada? Mekoletatik gora, basoan bidea egiten genbiltzan gerra hasi zenean. Otxandioko bonbardaketaren unean hantxe egon ginen. Gero, galbidera.

Gogorra izan zen, eta berba gutxi egin izan duzu horretaz orain arte, ezta etxekoekin ere...

Guretzat oherik ere ez zegoen. Langile taldeetan sartu gin-

“*Aranda de Dueroko kontzentrazio eremura bota gintuzten, lanera*”

tuzten, frontean barik. Gauetz trintxerak egiten genituen, eta egunez lo. Errekazabalen geneukan kuartela, eta hara erretiratzeko ginen. Gauetz, batean Otxandiora, bestean Durangora, bestean Eibarrera...

Zure anaia bi ere egon ziren gerran, ezta?

Bai. Zaharrena, atzean zegoen; frontean barik, intendentzian. Gazteena bai, frontean ibilizen.

Gernika sutan ikusi zenuen. Bonbardaketan zehar, Errekazabalen egon ginen. Hegazkinak pasatzen ziren, eta bota eta bota, ez ziren geratzen. Gauetz pasatu ginen Gernikatik, baina barrura ez ginen sartu. Alboko herriren batean egon ginen trintxerak egiten. Gernika sutan zegoen. Ezin dizut esan barruan zer egon zen.

Kolpistak Otxandiotik sartu ziren. Ze akordu duzu? Frankistak sartzean, harrapa-

tutakoak Dimako abiazio eremura ekartzen zituzten, eta bakana hiltzen zituzten.

Geroago, preso hartu zintuzten, eta frankisten lan baitailoietan aritzera behartuta egon zinen.

Batetik bestera eramaten gintuzten, eta, azkenean, Santanderren agertu ginen. Zeren plazan egon ginen, holantxik (eskuagaz ‘asko’ irudikatu du). Ez dakit zenbat denbora egon ginen han, eta gero handik atera gintuzten. Aranda de Dueroko kontzentrazio eremura bota gintuzten, lanera. Gero Bilbora eramango gintuztela esan ziguten, baina Zaragozan amaitu genuen, errepideak egiten. Eskerrak kapitain ona geneukala eta tratu ona ematen zigula; familia gorria zuela esaten zen. Anaiak ere preso zeuden. Hiruretatik bat libratuko zela esan ziguten,

“*Hiru anaietatik bat libratuko zela esan ziguten, eta neu libratu nintzen*”

eta neu libratu nintzen. Etxean utzi ninduten, eta aita eta amari laguntzen hasi nintzen etxeko lanetan. Baina, anaiak etortzean, berriro ere eraman ninduten, falta zitzaidan denbora egitera.

Etxera bueltatzean, bizimodu aurrera ateratzen asmatu behar...

Etxera etorri nintzenean, ez zegoen lan handirik. Dimako errepidea konpontzen ibili nintzen, gero Lemoan blokeak egiten... 13 behargin ginen tailerrean, eta 11 pezeta kobratzen genituen. Tristeza da gero! Lana amaitzean, Lemoatik Igorrera tranbian joaten nintzen, eta handik Obaraino (Dima) oinez. Hurrengo goizean, Igorrera baino bajatu, eta tranbia hartuta lanera.

Izurtzara ezkondu zinen geroago. Zelan etorri zinen Dimatik hona?

Durangoko Kalebarrian bizi zen arreba, eta bertan egoten nintzen. Ortizenean egiten nuen lan, eta gero San Roken. Nire andrea agertu orduko, beste batek harrapatu gura ninduen. Orduko kontuak dira eta! Txakurzulo ingurura joan ginen ira ebagiten, eta bueltan, haregaz joan barik honegaz geratu nintzen. Bestea haserretu egin zen!

Worth It | Ander Olabariaga, Asier Otaduy, Imanol Bilbao, Aritz Aranburu eta Odei Arrizabalaga.

“Gure musika guk beste gozaten duen lagun taldea dugu inguruan”

Irailaren 16an Zaldibarko Gaztetzeko jaietan aurkeztuko du Worth It taldeak ‘Closer’ lehenengo diskoa



> MUSIKA Itsaso Esteban
Zelakoa izango da irailaren 16ko Zaldibarko kontzertua?
Odei Arrizabalaga: Gure kontzertuak izan ohi diren eran, zuzena eta intentsioa izango da, eta gure lehen diskoaren aurkezpen jaialdia denez, sorpresaren bat ere egongo da. Onena, bertara etorri eta gugaz batera ondo pasatzea eta dena ematea da.

Fourscore eta Drop taldeek ere joko dute aurkezpenean. Nondik dator talde horiekin daukuzuen harremana?
O.A.: Gure taldea sortu aurretik euren kontzertuetara joaten

ginen, eta lagun handiak ditugu orain. Euskal Herrian dagoen hardcore talde garrantzitsuenetarikoa bat da, eta oso pozik gaude gure lehen diskoaren aurkezpen jaialdian joko dutelako.

Urtebeteen kontzertu asko jo dituzue. Itxura batean, asko gozaten duzue zuzenekoak.
O.A.: Kontzertuetan gozaten dugu gehien, izan ere, gure abestiak zuzeneko abestiak direla uste dugu. Lokalean sortzen ditugun kantak jendeagaz partekatzea esperientzia itzela da. Gainera, ez dago jendea gozatzeko ezinbestekoak dira, eta, zorionez, laguntza handia izan dugu.

Aritz Aranburu: Taula gainean ari garenean, jendeagaz konexio edo enpatia bat sortzen saiatzen gara, Hardcore musikak berezko daukan ezaugarrietako bat da hori. Denon artean sortzen da kontzertua eta

gure musikak eta estiloak sustatzen dituzten balio horien artean dago, ikusleek ere gugaz batera parte hartzea.

Denbora gutxian kantak sortu, kontzertu asko eskaini eta disko bat grabatu duzue. Zelan lortu duzue egitasmo horiek guztiak gauzatzea?

O.A.: Lanagaz, esfortzuagaz eta ilusioagaz. Zerbaitetan sinesten duzunean, eta gustuko badozu, edozer egin daiteke. Talde bat izanik, denok behar ditugu osagai horiek; helburu bat ipini, eta lortu arte ekin. Kanpoko jendearen laguntza eta bultzada ere ezinbestekoak dira, eta, zorionez, laguntza handia izan dugu.

A.O.: Egiten dugun musika guk beste gozaten duen lagun talde polita dugu inguruan. Beraien laguntza barik taldearen lehen urtea ez zen hain gozoa izango.

A.A.: Taldea sortu eta ibilbidea hasi genuenean, egiten genuena benetan gustuko genuela eta proiektuak merezi zuela konturatu ginen, benetan gustuko zerbait aurkitu genuelako.

Zer sentazio duzue egindako lana entzuten duzue?

O.A.: Sentazio oso ona. Lan gogorra izan da disko hau grabatzea. Gutariko batzuentzat lehen aldian izan da estudio batean, eta esperientzia gogorra baina atsegina izan da, batez ere kantak forma hartzen doazela ikustean. Prozesua pentsatu baino gehiago luzatu da, baina islatu gura genuena lortu dugu la uste dugu. Eskerrak eman gura dizkiogu Jon Olabariagari bere lan eta pazientziagatik. Bera izan da prozesu guztiaren gidari, eta asko lagundu digu.

Zuzenean transmititzen duzuen energia eta indarra dira zuzenekoak. Zaila izan da hori diskoan islatzea?

O.A.: Gure arduretako bat hori izan da. Disko bat aurkezpen txartel bat da, eta zuzenekoagaz lotuta dago. Horregatik, laburrak eta zuzenak dira kantak. Abestien ordena ere ondo pentsatuta dago, bata bestearen segidan eta oso hurbil doaz, diskoak erritmo altua izan dezan.
A.O.: Zuzenean egin ezin dugun

ezer ez dago diskoan. Ahal den heinean, diskoak gure kontzertu bat irudikatzea gura dugu.

A.A.: Hardcore musikak berezkoa duen indarra hori zuzenekoetan pizten den zerbait da, musika estilo honen potentziala zuzenekoak baita. Dena dela, diskoak entzuten duenak doinu horiek ezagutzeko aukera izango du, eta gure kontzertu batean zer aurkitu dezakeen ere.

Taldekideetako batzuk beste hainbat taldeetan jotakoak zarete... Zelan elkartu zineten Worth It sortzeko?

A.O.: Odeik eta biok denbora dezente pasatu genuen taldekide egokiak topatu guran. Ilusio handia genuen, baina taldekideak falta. *Tarran* taldean egon behar zela argi ikusi genuen, eta aurrerago, Imanol eta *Zana* sartu zirenean, beste dimentsio bat hartu zuen taldeak. Egiten dugun musika ganoraz gauzatzeko ezaugarri eta gaitasun konkretu batzuk behar dira, abiadura eta indarra adibidez. Eurenkin, taldeak hasieratik amesten genuen izaera hartu zuen.

A.A.: Taldekideen artean, musika aldetik estilo eta influentzia ezberdinetatik gatozen arren, Hardcore-aren baitan elkartu gara denok. Horixe da Hardcore mugimenduak daukan ezaugarri aberatsenetako bat: jendea anaitasun eta laguntasun giroan elkartzea.

‘The Right Hand’ aurkezpen kanta bezala laburrak, bizkorak eta intentsioak dira diskoak beste kantak ere?

O.A.: Kanta guztiak ez dira hain bizkorak, baina erritmo altua eta intentsitatea ez dira galtzen disko osoan. Hori da gustuko duguna, eta hori da egiten duguna.
A.O.: Gure helburua beti izan da hardcore azkarra egitea. Abesti dinamiko eta erritmo handikoak dira denak. *The Right Hand*-egaz, gure estiloa zein den argi utzi gura genuen.

Zaldibarrera joaterik ez duenak edukiko du ‘Closer’ zuzenekoak entzuteko beste aukerarik Durangaldean?

O.A.: Taldea hasi genuenetik, asko jo dugu Durangaldean, eta oso pozik gaude. Deitu eta lagundu diguten lagun, Gaztetzeko eta taberna guztiei oso eskertuta gaude. Momentuz, aurkezpenetik aparte ez dugu besterik lotuta Durangaldean, baina kontzertuak ematea de gehien gustatzen zaiguna, eta zabalik gaude edozertarako!



Urrian zabalduko dute boluntario izan gura dutenentzako izen-ematea.

Izen-ematea hasi dute aurtengo Durangoko Azokan parte hartzeko

Abenduaren 2tik 6ra egongo da zabalik 51. Azoka

> AZOKA I.E. 51. Durangoko Azokan parte hartu gura duten argitaletxe, diskoetxe, ekoiztetxe, elkarte, erakunde eta banatzaileek zein auto-ekoizleek izena eman ahal izateko epea zabaldu du Gerediaga Elkartek. Irailaren 30era bitartean eman ahaliko dute izena, www.durangokozoka.eus webgunean.

Irailaren 30era arte eman ahaliko dute izena sortzaile eta ekoizleek Durangoko Azokaren webgunean

Durangoko Azokan bere produktuak erakusgai ipini gura dituenak hainbat aukera izango

ditu aurtun ere; erakusmahai osoa edo erdia alokatu ahaliko du, edo baita auto-ekoizpenen gunea beste hainbat ekoizlegaz partekatuta ere.

Abenduaren 2tik 6ra burutuko da 51. Durangoko Azoka, baina horren aurretik hainbat hitzordu zehaztu dituzte antolatzaileek, dagoeneko: Ikasle Egunerako antolatuko dituzten tailerretan parte hartu gura duten ikastetxeetako arduradunek irail erdialdetik aurrera eman ahaliko dute izena. Bestalde, antolatzaileek aurreratu dutenez, urrian egingo dute deialdia, beraien lanak —liburu zein diskoak— zuzenean aurkeztu gura dituzten sortzaileek zein Durangoko Azokan boluntario gisa lan egin gura dutenek izena eman dezaten.

GEURE DURANGALDEA

LIBE MIMENZA

Kazetaria



Esan baietz, esan bai

Ez ginen mundura jaio sexua aukeratzeko eskubidearen jabe.

Ez gara, hala ere, egokitu zitzaiaguna aldatzeko desiraz bizi. Ez garelako izango gaur garena baino.

Ez al duzu inoiz emakume baten arima oinazetua sentitu?

Ez gara DNA arrosarekin itota hazitako ipuin bateko protagonistak.

Ez dugu lan berdinen truke soldata baxuagoa eskuratzeko onartzeko heziketa jaso.

Ez da sukaldea gure habitat naturala.

Ez da gure gorputza inoren ukabilen mihise.

Ez dugu bakarrik bidaiatzean zer ausartak garen entzun nahi.

Ez da inor femeninoa zer den eta zer ez den esateko jaio.

Ez gara buztinezko txotxongilo moldagarriak.

Ez dugu ordu txikitik etxerako bidea atzera begira egitea maite.

Ez dugu astebete bost eraso sexistaren berri jasotzeko egonarrari nahikoa.

Ez gara ukazioen zerrendak idazteko bizi.

Ez gara eskubideez baino mintzo.

Ez gaude haserre, ez; nazkatuta gaude.

Ez gara aske ez den beste egoera zibil batekin ezkonduko.

Ez gara erdiak, ez gara osagarriak; ez gara oso bat baino.

Ez genuen historiaren zamari sorbalda gainean eusteko premiarik.

Ez dugu inoiz, berriro, belduraren gatibu gure arnasa irudikatuko.

Ez diogulako etorkizunari parekidetasuna lapurtuko.

Ez esan bi letraren konbinazioa ulertzen ez denik.

Ez diogu.

Ez ulertu behar duzu.

Ez; ezetza, ezetza da.

> ANTZERKIA

I.Esteban Europako hainbat hiritako antzerki jaialdietan bere antzezlanak erakusten ibili da Zornotzako Markeliñe antzerki taldea, udan. Portugalen, Danimarkan, Polonian, Alemanian eta Ingalaterran egindako antzerki jaialdietara gonbidatu dute Zornotzako taldea. Brasil dute Markeliñeko kideek hurrengo helmuga: herrialde hartako Santos hirian egiten ari diren Mirada jaialdiaren barruan, *Andante* ikuskizuna eskainiko dute Markeliñekoek datorren asteburuan.

Zornotzako antzerki taldeko arduradunek azaldu dutenez, Espainiako Estatuko antzerki eszena garaikidea da, aurtun, Santos hiriko Arte Eszenikoen jaialdiko gonbidatu nagusia. "Arteak, asmo poetikoa eta aniztasun estetikoak galdu barik,

Brasilgo Santos hirian eskainiko du Markeliñek 'Andante' lana

Santos hirian egiten ari diren Mirada arte eszenikoen jaialdian arituko dira

errealitate historikoaren, sozialaren, politikoaren eta ekonomikoaren aurrean erreazionatzeko duen gaitasunaren" isla delako aukeratu dute Markeliñeren *Andante* erakustea. Izan ere, ezaugarri horiek ditu 2014an Tárregako antzerki jaialdian estreinatu zuten *Andante* lanak.

Iaz, Euskadiko kaleko ikuskizunik onenaren saria jaso zuen Markeliñeren *Andante*-k, Leioako Umore azokan. Gerretako istorioak kontatzen ditu obrak, zapata anonimoen metaforagaz gogoeta, salaketa eta omenaldia bultzatuz.



Euskadiko kaleko ikuskizunik onenaren saria jaso zuen 'Andante'-k, Leioan, iaz.

Tierras del Cid Burgos

Gaztelako musika tradizionalaren VIII. jaialdia
Irailaren 10ean, 20:00etan

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustín KULTUR GUINEA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA

EGUNEKO MENUA
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

IRAILAK 10
20:30ean
DURANGO REGGAE JAIALDIA

IRAILAK 17
22:00etan
HARCORE-PUNK GAUA
KONTZERTUA

URRIAK 1
22:30ean
DAVID GUAPO
BAKARRIZKETA

eskolara buelta



5 KATEGORIA SARITUKO DIRA:

- ESKUALDEKO argazkirik onena.
- Durangaldetik KANPOKO argazkirik onena.
- "SELFIE"-rik onena.
- Argazkirik FRESKOENA.
- Argazkirik UMORETSUENA.



Informazio gehiago www.anboto.org webgunean

IRABAZI ASTEBURU PASA ZORAGARRIA

UDAKO 2. ARGAZKI LEHIAKETA

anboto 
komunikabideak

Lokal berria inauguratuko du AEK-k Santanosten

Irailaren 21ean Santanosteko egoitza berria inauguratuko du Abarrak euskaltegiak

> **EUSKARA** M.O. / J.G.

Abarrak kimatu, zuhaitzak berritu. Lelo horregaz aro berri bati hasiera emango diote Durangoko Abarrak euskaltegiak. Orain 50 urte ekin zion Abarrak-ek gau eskolak antolatzeari. Horietatik 40 Pinondo plazako lokalean eman eta gero, ikasturte hau Santanosteko egoitza berrian abiatuko dute. “Urte asko eman ditugu Pinondon, baina eraikina zaharkitzen ari zen eta eskailera asko zituen. Barrera arkitektonikoak garrantzitsuak dira gaur egun. Bagenekien beste leku bat beharko genuela, eta aukera ikusi dugunean lekualdaketa egitea erabaki dugu”, azaldu du Miren Iturriagaetxebarria AEK-ko arduradunak. AEKren lokal berria Pinondotik oso gertu dago, Mañaria erreka beste aldean. Beraz, Alde Zaharrean jarraituko dute.

Lokal berria “erosoagoa” dela aitortu du Iturriagaetxebarria. Gelak handiagoak dira, eta autoikaskuntza gela modernoagoa da. Taldekako eskolak emateko bost gela dituzte, eta bakarkako klaseetarako autoikaskuntza gela. Harrerak eta irakasleen gelak borobiltzen dute espazioa. Obra nagusia eginda dagoen arren, errotulazioa jarri eta mobiliario guztia atontzea gelditzen zaie euskaltegi arduradunei.

Inaugurazio ekitaldia

Irailaren 22an izango da inaugurazioa, arratsaldean, 18:30ean. Ekitaldira irakasle, ikasle eta erakundeak gonbidatuko dituzte. Aukera ezin hobea izan daiteke AEK-k euskara ikasteko eskaintzen dituen aukerak ezagutzeko. “Euskara ikasi gura duten guztiak gonbidatuta daude”.



Pinondon, Andragunearen aldamenean egon da Abarrak.



Ikasturte berria Santanosten abiatuko dute, Mañaria erreka beste aldean.



Joan zen astean matrikulazio kanpaina aurkeztu zuten Zornotzan.

Euskaraz ikasteko eskaintza zabala dute Zornotzan

Udal Euskaltegiak, AEKn eta Barnetegian eman daiteke izena

> **EUSKARA** Joseba Derteano Zornotzako Udal Euskaltegiak, AEK-k eta barnetegiak helburu amankomunak dituzte. Horregatik, elkarrekin aurkeztu dute hastear dagoen ikasturteko matrikulazio kanpaina.

Zornotzako AEK-k tituluak lortzera begirako ikastaroak ematen ditu, esaterako, C2 ikastaroa. Klaseak emateko moduak joera berrietara moldatu behar

izaten dira. Horren adibide dira on-line eskaintza eta “aspaldian gero eta jende gehiago” eskaintzen duen autoikaskuntza, Julio Aranguena Zornotzako AEK-ko arduradunaren arabera.

Udal euskaltegiak 212 ikasle izan zituen iaz. Hiru urtean ia %20 egin du gora ikasle kopuruak. Jomuga berezietarako ikastaroen artean merkatari eta tabernariei bideratutako berri

bat sortzen saiatuko direla adierazi du Idoia Zuluagak.

Euskaraz bizitzeko aukera eskaintzea. Horixe da Zornotzako Barnetegiaren helburua Marivi Zubiaga zuzendariaren arabera. Eskola eta enpresetan ikastaro espezifikokoak ere eskaintzen dituzte on-line zein aurrez aurre. Autoikaskuntza ikastaroak ere badituzte, A-2 mailatik C-2 mailara arte.

IK Iurreta kopistegia

IMPRESIO DIGITALA
DISEINU GRAFIKOA

ESKOLA MATERIALEAN
ESKANTZA ZABALA

Bidebarrieta, 1 · 48215 IURRETA
T: 946 811 070 · info@iurretakopi.com

Tailer kulturalak
2016/2017

Iurreta
Elizateko Udala



• **IKASTAROAK** ·
Helduentzako pintura / Sukaldaritza / Eskulanak / Yoga / Sabel dantza / Saloi dantzak / Mantenuerako gimnasia / Gimnasia lasaia / Egur-lanketa / Pilates

• **UMEENTZAKO IKASTAROAK** ·
Umeentzako pintura / Jolas-ingelesa

• **GAZTEENTZAKO IKASTAROAK** ·
Sormen tailerra / Hip-Hop

MINTZA-PRAKTIKA TALDEAK:
ingelesa, frantsesa eta alemana.

MATRIKULA EPEAK:
- Irailaren 13tik 16ra Iurretan errolatutakoentzat.
- Irailaren 19tik 22ra Iurretan errolatuta ez daudenentzat.

Izena emateko Ibarretxe Kultur etxean
09:00etatik 13:00etara edota
tailerkulturalak@iurreta.eus helbidera idatzita.

Antzerkiaren bidez, gorputza eta burua kontrolatzeko gai dira gazteak

laztik, Karrikak antzerki eskola eskaintzen du Kurutziaga Ikastolan



Antzerki eskolako ikasleak beraien lana antzezen.



> ANTZERKIA M.Zuazubiskar Udako oporrak bukatuta, eskolara bueltatzeko ordua heldu zaie hainbat gaztetxori. Eskola orduak garrantzi handia dute beraien heziketan, baina, ez da gutxiagorako aisialdiak duena. Ume eta gazteen eskolaz kanpoko orduetan aisialdia nagusi izan dadin, Berbarok eta Karrika Antzerki Taldeak pauso garrantzitsua eman zuten iaz.

Lehenengo urteaz geroztik, Karrika Antzerki taldeko kideak antzerki eskola eskaintzen dabilta eskola orduetatik kanpo Kurutziaga Ikastolan. Eta aurrera begira, beste ikastetxe batzuetara zabaltzea edo beraiek gazteentzat antzerki eskola bat sortzea helburu dutela adierazi du Maite Lopez Karrikako kideak.

Pasa den Aste Santu bueltan, proiektua martxan jarri eta 50 bat gaztek beraien gorputzagaz eta imajinazioagaz jolastu eta

Antzerki eskolaren proiektuari jarraipena eman gura dio Karrikak

istorio ezberdinak sortzea izan zuten helburu.

Lanketa berezia

Gazteak antzerkigintzara hurbiltzeak duen garrantziaz konturatuta, eta egiten duten hori beraiei gustatu egin behar zaie jakinda, Karrikako kideek teknika bereziak erabili zituzten, eta erabiliko dituzte, hemendik aurrera.

Lehenengo eta behin, lotsak alde batera uztea eta norberaren gorputzagaz jolasten ikastea da Karrikako kideen helburua. Hori lortzeko, hasierako hilabeteetan jokoak izaten dira nagusi antzerki eskolan. Lopezen

hitzetan, “jendearen aurrean hitz egiteari edo egote hutsari lotsa kentzea ezinbestekoa da antzerkigintzan aritzeko. Eta beldur hori kentzeko, teknikarik aproposena jokoak egitea da, gure buruarengan konfiantza izateko”.

Behin konfiantza hartuta, hurrengo hilabeteetan sorkuntzan eta antzerkigintzan oso-osorik murgiltzen dira. Eta, horretarako, aurrez sortu dituzten edo Karrikako kideek egin dituzten gidoiak erabiltzen dituzte beraien istorioak egiteko.

Behin aurretiazko lan guztia eginda, lotsak kenduta eta gidoia buruz jakinda, jendarean antzeztea besterik ez dute helburu izaten gaztetxoek.

Artearen garrantzia

Jendaurrera irtete hori pauso garrantzitsua izaten da gazte zein helduentzat. Askorentzat besteen aurrean hitz egitea erronka bihurtzen da askotan. Antzerkigintzak eta sorkuntzak istorioak jendarean kontatzeko gaitasuna eskaintzeaz gain, beste hainbat teknika ere ematen dute.

Esaterako, gazte zein helduei beraien sentimenduak, gorputza, burua... kontrolatzeko gaitasuna ematen die.

“Artea txikitatik lantzea oso garrantzitsua da, antzerkiak autonomo izateko hainbat baliabide eskaintzen ditu eta. Antzerkiak pentsatzen hasteko eta beraien imajinazioa martxan jartzeko aukera paregabea eskaintzen die gazteei. Gainera, teknika ezberdinekin jendarean nola jokatu ere ikasten dute”, aitortu du Maite Lopezek.

Hemendik aurrera, hasi berri duen ibilbide berri honi jarraipena ematea du helburu Karrikak. Lopezek baieztatu duenez, “antzerki eskolak izan zuten erantzun bikaina ikusita, gaztetxoekin lanean jarraitzea da gure helburua”.

Gainera, antzerki eskolaren proiektuari forma eman eta inguruan hau zabaltzea gura dute la baieztatu du.



Ikasleak antzerki eskolan.

Boboliren udazkeneko
bilduma barria
ezagutu egizu

Astarloa 15 - Durango
0 hiletik 16. tailararte
Tel. 94 623 26 32



www.boboli.es

Bullyng-ari aurre egitea lortzen dabilen metodoa eskualdeko ikastoletan

KiVa metodoa 2017ko urtarrilean abiatuko dute Kurutziaga, Txintxirri eta Andra Mari ikastoletan



Guztira, 52 ikastolek txertatuko dute bullyng-ari aurre egiteko KiVa metodologia 2017ko urtarriletik aurrera.



Koldo Tellitu Ikastolen Elkarteko presidentea eta Pasi Kaskinen Finlandiako Unibertsitateko presidenteordea bostekoa ematen.

> BULLYNGA J. Derteano
KiVa programa bullyng-ari aurre egiteko Finlandian garatu duten metodologia bat da, hezkuntza komunitatearen eta Finlandiako Gobernuaren artean landu dutena. Metodologia txertatu den Finlandiako ikastetxee-

Bullyng kasuetan tade osoa gidatzen duten arauak aldatzea da helburua

Finlandian eta beste hainbat estatutan emaitza positiboak utzi dituen metodoa da

tan oso emaitza onak eman ditu. Programaren eraginkortasuna ez da oharkabean pasatu, eta Europako beste herrialde batzuetara ere zabaldu da, antzerako emaitza positiboekin. Hori horrela, Ikastolen Elkartek hitzarmen bat sinatu du Finlandiako Unibertsitateagaz programa hemen ezartzeko. 2017ko urtarriletik aurrera Lehen Hezkuntza eskaintzen duten 52 ikastolek abiatuko dute KiVa metodologia. Durangaldean adin tarte horretako hezkuntza eskaintzen duten hiru ikastolak tartean daude: Durangoko Kurutziaga, Zornotzako Andra Mari eta Elorrioko Txintxirri.

Prebentzioa eta taldearen indarra. Horiexek dira KiVa metodologiaren bidez indartu eta landu gura dituzten zutarrak. Erasotzailea eta biktima ez dira ikastetxeetako jazarpen kasuetan inplikaturik dauden protagonista bakarrak. Bullyng jokabide horiek bertatik bertara ikusten dituzten ikusle edo lekukoak ere badaude, eta horiek isilik geratzen badira edo erasotzailearen jarrera babesten badute, kasu bakoitzetik garaile irteten den jokabide mota erasotzailearena da. Errekonozimendu soziala jasotzen du, eta hurrengon ere berdin jokatzeko hauspoa ematen dio. Horregatik, taldeko nagusitasuna biktimaren aldeira eramatea bilatzen du KiVa programak: "Agente pasiboak direnak aktibatzea bilatzen du, gertatzen ari den horretan parte hartu dezaten. Azken batean, ez da bakarrik erasotzailearen eta biktimaren artekoa den kontu bat. Inguru sozialak ere eragitea garrantzitsua da. Egoera horiek normaltzat ez hartzea, eta taldea horretaz kontziente izatea bilatzen du metodologiak", Kurutziagako irakasle Jon Urretabizkaiaren esanetan.

Ikastola Elkarteko webgunean jasotzen diren datuen arabera, ikasleen %8 inguru izan dira edo izango dira eskola jazarpenaren egile, eta %7 haien laguntzaile izango dira. Ikusle edo lekukoei dagokienez, gehiago dira erasotzailearen alde agertzen direnak (%20), biktimaren alde agertzen dire-

Zubibitarte, 11 etxabea ezkerre
MATIENA, ABADIÑO (Jata-ren parean)
946 814 282 • 606 757 720

**GEHIENEZ
5 IKASLE
IKASGELAKO**

REDHILL Language school

www.redhilllanguages.com

*Berezitako heziketa, mugagabea eta denentzako aukera bilakatzen dena,
bakoitzaren ezaugarriak kontuan izateagatik*

Arreta goiztiarra
Eskolako laguntza psikoedukatihoa
Adimen emozionala
Trebetasun sozialak
Jarrera arazoak
Lengoaia eta komunikazioa
Fisioterapia

Askatasun etorbidea, 4 DURANGO - Tel.: 946 071 985 / 672 481 370 - eilekecentropsicoeducativo@gmail.com
www.eileke.com



Urtea amaitu bitartean metodologian barneratzeko lan saioak izango dira.



nak baino (%17). Besteak (%34) ez dira ohartuko eskola jazarpenaz.

Beraz, lekuko den bullying kasuetan taldeak biktimarekiko enpatia erakusten badu eta ez erasotzailearekikoa, jokabide zuzena irtengo da indartuta, erasotzaileak sentituko du oker ibili dela, eta kasu bakoitzean bilatzen den jokabide korrontea irtengo da indartuta. Horretarako, ikasleek bullying-a zer den eta zer ez den jakin behar dute, horrelako kasu baten aurrean daudenean detektatu ahal izateko. Horregatik, prebentziorako proposamenetan indar berezia jartzen du KiVa egitasmoak.

Formazioa

KiVa 2017ko urtarrilean sartuko da indarrean 52 ikastolatan. Ordura arte, prestakuntza lana egingo dute ikastolek eta eurretan diharduten eragileek. Orain arte KiVa buruzko lan saio bat baino gehiago izan da, eta aurrerantzean ere izango dira. Era berean, metodoak

Herbeheretako, Italiako eta Erresuma Batuko hainbat ikastetxetan darabilte KiVa

ikas komunitate osoa aintzat hartzen du, gurasoak ere bai beraz, eta Kurutziagan, esaterako, irailean zehar gurasoekin egingo diren batzarretan metodologiaren gaineko azalpenak—orain arte jaso dituztenak—emango dituzte.

Metodo arrakastatsua

Oraingoz, Lehen Hezkuntzara (6-12 urte bitartean) begirako programa da. Finlandian 2006an hasi ziren lantzen Gobernuak Finlandiako Turku Unibertsitateari hala eskatuta, eta 2009az geroztik martxan dago. Harrezkero, Herbeheretan, Italian, Erresuma Batuan eta Estonian erabili dute, besteak beste.

KiVa programari buruz informatzeko Finlandiako Hezkuntza Ministerioak eta Turku Unibertsitateak sortutako webguneak (www.kivaprogram.net) metodologia hori txertatu den herrialdeetan izandako emaitzak jasotzen ditu. Positiboak dira denak. Italian, programa hau darabilten ikastetxeetan, %55 inguru jaitsi dira bullying kasuak 2013-14 urtetik hona. Herbeheretan %29tik %13.5era jaitsi da bullying-a jasaten dutela esaten duten ikasle kopurua. Erresuma Batuan 17 ikastetxek txertatu zuten KiVa metodoa 2013-14 ikasturtean, eta “bullying-aren jaitsiera adierazgarriak jakinarazi dituzte”, webguneak jasotzen duenez, eta ondo hartu dute ikasleek zein irakasleek.

KiVa nazioarteko sariak ere jaso ditu. 2009an, Finlandian abian jarri zuten urtean, Krimenaren Prebentziorako Europako Sareak banatzen duen saria irabazi zuen. Sare hori 2001ean sortu zuen Europar Batasunak.

Azterketa ofizialak, ingelesa, frantsesa eta alemana



Cambridge English Exam Preparation Centre

Matrikula zabalik!

The English Language Academy
www.englishlanguageacademydurango.com
Tel.: 946 819 088



Kurutziaga Akademia

Astirografia • Bibliogintza • Marrazkigintza eta zintzura • Matematik eta modelismoa

ARTE EDERRAK

Ume eta nagusientzako pintura eta marrazkigintza kurtsoak

MATRIKULA ZABALIK

• Astelehenetik ostiralera
• Goiz eta arratsaldeko ordutegia

Tel.: 94 603 05 27

Informa zaitz konpromiso gabe

info@academiakurutziaga.com • www.academiakurutziaga.com

SOINUA MUSIKA IKASTEGIA
Matrikula zabalik!

Estimulazio musikala
4 urtetik aurrera eta talde txikietan

PIANOA, AKORDEOIA, TRIKITIA,
GITARRA, GITARRA ELEKTRIKOA, KORUA



soinua

Kalebarrria, 1 - 1 Durango
946 030 338 - soinua@euskalnet.net



PYM'S IDIOMAS
SINCE 1974

Cambridge English
Exam Preparation Centre

2016-2017 IKASTURTE HASIERA

www.pymsidiomas.com

Jatorrizko irakasleak
Tel.: 946 815 677



Ikasteko inoiz ez delako berandu, Durangoko nagusienek ere eskolarako buelta izango dute

Durangoko Udalak 22 ikastaro antolatu ditu zahartzaro aktiboa sustatzeko



Durangoko ikastaroen aurkezpena, joan zen barikuan.



Bizidun elkarteko berbaldi baten ostean ateratako argazkia.

> NAGUSIAK Markel Onaindia Ikasketena umeen eta gazteen kontua dela uste da, baina berandu, ikasteko inoiz ez da berandu. Horrela, Durangoko nagusiek eskolara bueltatzeko

aukera edukiko dute ikasturte honetan ere. Udalak 22 ikastaro antolatu ditu, eta 554 plaza egongo dira guztira.

Nagusientzako ikastaroen helburu argia daukate, gaine-

ra: zahartze aktiboa sustatzea eta euren autonomia ahalik eta gehien luzatzea.

Bost programatan 22 ikastaroak bost programatan

Irailaren 20ra arte eman ahal da izena, eta 23an zozketa egingo da

1.840 lagun 80 urtez gorakoak dira, horietatik %65 andrak

banatuta daude. Esperientzia Institutuan, adibidez, 55 urtetik gorakoek euren heziketaz jarraitzeko saioak topatuko dituzte. Lagunkide programaz, eguneroko eginkizunetarako beste norbaiten beharra dutenen laguntzaile bihurtuko dira nagusiak. Zaindu programa dependentzia duten senideei bideratutakoa da, zaintza eramangarriago egin ahal izateko. Zahartze aktiboari lotuta, ikastaro ugari eskainiko dituzte: antzerkia, gimnasia, euskara,

meditazioa, irakurketa erraza, informatika, erorketen prebentzioa...

Auzoetara hedatzen

Bestalde, 80 urtetik gorakoentzako programan nobedade esanguratsu bat dago. Izan ere, ikastaroak Durangoko beste auzo batzuetara hedatzea erabaki du udalak, asistentzia errazteko asmoz. Hain zuzen ere, San Fausto, Aramotz eta Madalenara hedatuko ditu.

Durangoko Adinekoen Udal Egoitza alde zaharrean dago, Kurutzian. Bertan egiten dituzte ikastaro eta berbaldirik gehienak, eta berez herriko erdigunean egon arren, auzo batzuetako nagusientzat urrun geratzen da. Udalaren ustez, 80 urtetik gorako nagusi batzuek ez dute parte hartzen euren etxetik egoitzara dagoen distantziarik. Horrela, San Fausto, Aramotz eta Madalenako auzoetan ere ikastaroak eskaintzea erabaki dute.

Ongizate emozionala

Durango 1.840 lagun 80 urtez gorakoak dira, horietatik %65 andrak. Biztanle horien autonomia sustatzea da udalaren helburu nagusia, ahalik eta denbora gehienez era autonomoan bizitzen laguntzea. Horretarako, euren ongizate emozionala ere landuko dute ikastaroetan.

Inskripzioa, martxan

Dagoeneko martxan dago ikastaroen inskripzioa. Irailaren 20ra arte eman ahal da izena, eta 23an zozketa egingo dute. Gero, hilaren 26tik urriaren 10era bitartean, behin betiko matrikularako ordua izango da, zozketan lekua tokatu zaien artean. Urteko ikastaroen 12 euro balio dute, eta informatikakoak doan dira.

Diru-laguntzak ere egongo dira eskura udaletxean.

Bizidun

Bestalde, udaleko egitarauaz gainera, Durangaldean sortutako nagusi aktiboen Bizidun elkarteak berbaldiak eta ibilbideak antolatzen ditu, besteak beste.

KURTSO BERRIRAKO ESKAINTZA BEREZIAK

urki
Prentsa eta enpresa

- Testu liburuak
- Amantalak
- ...

Bixente Kapanaga, 10
Iurreta
94 402 31 05
684 14 28 47

UDAL EUSKALTEGIAK 16/17 IKASTURTEA

erabilip euskara

Izena emateko epea
irailaren 1etik 26ra
Tel.: 946 030 040
euskaltegia@durangoeuskaltegia.net

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403



Ainhoa Imaz zuzendaria, Rakel Aldekoa ikasketa burua, eta Andre Diatta eta Maitane Osa ikasleak, helduen hezkuntzaz berbetan.

Helduen hezkuntza zentroa ere kurtso berriari ekiteko prest

Durangoko Helduen Hezkuntzako Ikastetxea ezagutu du ANBOTOK

> HEZKUNTZA Itsaso Esteban Irailaren 16ra arte, matrikulazio epean daude Durangoko Helduen Hezkuntzako Ikastetxean. Eskolak ez dituzte oraindik hasi, baina zentroaren egunerokotasuna ondo ezagutzen duten lau lagunekin solasaldia izan du ANBOTOK: Ainhoa Imaz zuzendaria, Rakel Aldekoa ikasketa burua, eta zentro horretako ikasleak diren Maitane Osa eta Andre Diattak eman dute eskola horretako jardunaren berri.

Ikasleen bizipenak

20 urteko markinarra da Maitane Osa, eta Helduen Hezkuntzako Ikastetxean Bigarren Hezkuntza amaitzen duenean erdi mailako gradua ikasi gura du ikus-entzunekoen arloan; Senegalen jaio zen 33 urteko Diatta, eta duela zortzi urtetik Iurretan bizi da. Bigarren Hezkuntza amaitu eta ikasten jarraitu gura du Diattak ere. Ikaskideak izan dira Osa eta Diatta aurreko ikasturtean, eta bien ustez, ikasleek den harreman aberasgarriagoa izatea dakar klasean jatorri desberdi-

netako jendea elkartzeak. “Zer-bait ondo ulertzen ez dudanean, nire ama hizkuntza dakien ikas-kide bati galde diezaioket, edo baita laguna dudan Maitaneri ere. Oso harreman polita dugu”, dio senegaldarrak. Kulturari, adinari, generoari, hizkuntzari, zein erlijioari dagokionez ere oso anitza da ikastetxeko errea-

litatea. Urtero izaten dituzten 800 matrikulazioetatik bi heren etorkinenak izaten dira: senegaldarrenak, errumaniarrenak, peruarrenak, brasildarrenak...

Ainhoa Imaz eta Rakel Aldekoa irakasleek ere uste dute Helduen Hezkuntzako Ikastetxeko geletan dagoen aniztasuna onuragarria dela. Helduen hezkun-

tzan jarduteak, gainera, beste abantaila batzuk ere badauzka euren aburuz: “Hemen ez dago diziiplina arazorik, ikasleekin daukagun harremana zuzena-goa eta aberasgarriagoa da”.

Matrikula egiten duten pertsonen hezkuntza mailari dagokionez ere, aniztasuna da nagusi, Durangoko Helduen Hezkuntzako Ikastetxean: batzuk aurrez ez dira sekula eskola batean ibili, eta irakurri eta idazten ikasi behar dute lehenengo; beste batzuek ikasketak burutu zituzten euren herrialdeetan, baina ez dute titulazioa baliozkotzea lortu.

Hezkuntza arautuko titulazioak eskuratzeko zein hezkuntza ez arautuan hainbat arlotan trebatzeko aukera eskaintzen

Urtero 800 bat ikasletik bi heren etorkinak izaten dira

du Helduen Hezkuntzako Ikastetxeak: atzerritarrentzat gaztelania, ingelesa, informatika eta goi mailako zikloetarako zein unibertsitatearako sarbiderako ikastaroak ematen dituzte.



Irailaren 16ra arte dago aukera Helduentzako Hezkuntzako Ikastetxean matrikulatzeko.

Vitivic

Udazken-neguko bilduma berria

Rodriguez Arias 57 - Bilbao
Andra Mari 8 - Durango

LARUNBATA 10

GOIZ ETA ARRATSALDEZ

IREKITA

10:00 - 13:30

17:00 - 20:00

Kaixo



Abadiño zurekin

& Eskola!

Eskolara itzultzeko behar duzun guztia



2016ko abuztuaren 18tik irailaren 21era arte



Vaivénen obra berria dihardute Sagardoy eta Torregrosa durangarrek

Eneko Sagardoy eta Alfonso Torregrosa aktoreak 'Azken trenan Treblinkara' obran dabilta lanean

> ANTZERKIA Itsaso Esteban Donostiako Larratxo kulturguneko pabilioi bat II. Mundu Gerrako umezurztegi bihurtu du *Azken trenan Treblinkara* antzezlana berria Vaivén konpainiak. Umezurztegia irudikatzen, literek, mahaiek eta aulkiek osaturiko eszenografia sortu dute Larratxo kulturgunean. Han dihardute antzezlana bederatziko aktoreek lanean, tartean Eneko Sagardoy eta Alfonso Torregrosa durangarrek ere, eta bertan estreinatuko dute antzezlana, urriaren 1ean. Obra ikusterera doana istorioaren barruan kokatuko dute espazio horretan, "ahalik eta hurbilenetik bizi dezaten II. Mundu Gerrako istorio hura", kontatu du Sagardoyk. Oharra egin du, baina, Sagardoyk: "Trankil egon daitezela nire moduko beldurriak: inork ez du eszenara irten beharko".

Urriaren 21era arte agertoki horretan eskainiko dute *Azken trenan Treblinkara*. Asteazkenean, euskarazko bertsioa eskainiko diete ikastetxeetatik obra ikusterera doazenei, eta asteburuetan, sei emanaldi eskainiko dituzte

publiko orokorrarentzat: bi euskaraz (urriaren 2an eta 16an) eta lau gaztelaniaz.

Madrilen bizi den Alfonso Torregrosa durangarrek antzezlana obraren gaztelaniazko bertsioaren protagonistaren papera. Pertsonaia erreal baten azaletik dihardu Torregrosak: 1942an, Varsovian, ume juduentzako umezurztegi zuzendari izan zen Janusz Korczak mediku eta pedagogo da. "Haurren Errepublikan" izenekoaren sortzailea izan zen Korczak, hainbat adar pedagogiko alternatiboren sorburu izan dena.

Sufrimendura hurbildu

Eneko Sagardoyk azpimarratu duenez, antzezlanean Torregrosaren pertsonaia esaten dituen berba guztiak Korczak-ek benetan esan edo idatzitakoak dira. "Oso istorio hunkigarria da, benetan gertatu zena: benetan existitu ziren umezurtegi horiek, ume haiek benetan bizi izan zuten kontatzen dugun hori dena, eta benetan hil zituzten". Sagardoyk dio, aktore moduan izan duten erronkarik handie-



Donostiako Larratxo kulturgunea 1942ko ume juduentzako umezurztegi bihurtu du Vaivén taldeak.

netako bat sufrimendu hartara ahal beste hurbiltzea izan dela, horrela ikuslegoari ahalik eta ondoen helarazteko historiaren parte den istorio hori.

Daniel izeneko 22 urteko gaztea da Eneko Sagardoy antzezlanean: "Oso pertsonaia txikia, baina momentu oro eszenan dagoena". Umezurztegi pedagogia humanistaren eta errealtatearen arteko koherentzia eza bistaritzen du Danielek: "Zuek ideia polit horiek guztiak daukazue, baina gerran gaude, eta gu ere eraman egingo gaituzte gas kamerara", esaten du.

Antzezlana kontatzen dituen gertakariak oso dramatikoak izan arren, antzezlana protagonistarik gehienak umeak izanik, *Azken trenan Treblinkara* lanean umoreak ere ba-

duela lekurik azaldu du Sagardoyk: "Umeen argitasuna beti dago presente istorio honetan".

Vaivén taldeagaz, besteak beste, Ana Pimenta, Mireia Gabilondo, Jose Ramon Soroiz edo

Alfonso Torregrosa lankideekin, martxoan bi astez Madrilen egongo da Eneko Sagardoy, eta Euskal Herriko hainbat aretoetan ere eskainiko dute *Azken trenan Treblinkara*.



Korczak pedagogoak zuzendu zuen umezurztegiaren istorioa da obrakoa.

Kolonbian eta Gasteizen sorturiko doinu jamaikarrak, Plateruenean

Alerta Kamarada eta Kultura Roots Band taldeek joko dute reggae jaialdian



Duela ia bi hamarkada sortu zuten Alerta Kamarada taldea, Kolonbiako Bogota hirian.

> MUSIKA I.E.

Reggae jaialdi bat hartuko du Durangoko Plateruena kafe antzokiak, lehenengoz, bihar. Alerta Kamarada kolonbiarren eta Kultura Roots Band gasteiztarren kontzertuekin hasiko da Durangoko reggae jaialdia, 20:30ean, eta DJ bat jardungo da, ondoren, 60ko hamarkadan Jamaikan sorturiko musika estiloko kantak jartzen.

Abuztuan, besteak beste, Benicassimgo Rototom jaialdian

Udan European zehar egin duen bira amaitutzat emango du Alerta Kamaradak Durangon

Reggae estiloko kanten bertsioak joko dituzte Kultura Roots Band taldeko gasteiztarrek

eta Alemaniako hainbat hiritan aritu eta gero etorriko da Alerta Kamarada Bogotako taldea Plateruenean jotzera. Hain zuzen ere, udan European zehar egin duten bira hori amaitutzat emango dute Alerta Kamarada taldekoek biharkoagaz.

'Love is in da house'

Ia bi hamarkada dramatikoki Alerta Kamaradak reggae doinuekin Kolonbia eta Hego Ameriketako jendea dantzazten, eta *Love is in da house* izenburuko azken lana aurkezten dabilta, orain. Taldearen zazpigarrena den disko hori aurkeztuko dute Durangoko biharko kontzertuan ere.

Zazpi musikaririk 2015. urtean Gasteizen sortu zuten Kultura Roots Band taldeak, berriaz, reggae musikaren kanta ezagunen bertsioak eskainiko ditu, Durangon, bihar: Bob Marley, Alpha Blondie, edo Godwana-renak, besteak beste.

Durangoko Platerueneko reggae gaua borobiltzeko, DJ Bit Sound donostiarra arituko da musika ipintzen.



INDARBERRITUZ ABIATU I / II

> PRAKAGORRI Gorka Aurre
 Hasiera latza, astuna eta mal-kartsua aurkezten die ikasleei aste honetan irailak, batez ere egunotara arte uda guztian zehar izan duten askatasun harrigarria, zeregin handirik gabeko egunen joana, orenik gabe ibiltzeko ohitura barneratua, ilunabar luze eta epelen besoetan lagun arteko solasaldi ugari izateko abagune lasaietan egona, etxe-sabairik dagoen gogoratzeko astirik eza eta antzerako beste hainbat egoera...bat-batean, erabat aldatuko baititu, euren orde, erantzukizuna, helburuak, etxerako ariketak, azterketak, lana eta gainerakoak ezarriz.

Guraso eta ikasleek itxaropentsu azaltzen zaizkigu ikasturte berri bakoitzaren hasiera aurreko egunetan eta horretarako, jakina, arrazoi nahikorik izaten da. Guraso zein ikasle, zeharo atsedenduta azaltzen dira udako oporretan dagokion geldialdia egin ondoren. Indarberrituta datoz guztiak eta hasi berria dugun ikasturteari begira, ikasleek asmorik onenak, gogorik bizienak eta ahaleginik handienak egiteko borondatea erakusten dizkigute.

Erabat motibatuta datoz eta ez da gutxiagorako. Udak norberegandik at dauden ekintza asko burutzeko aroa eskaintzen digu eta alde aurretik aurreikusitako hainbat jarduera hautatu... gauzatu egiten dira, beste asko egiten jarraitzeko motibazioa ezarri eta ugarituz. Uda aroaren xedea norberak helburu dituen zereginak burutzeko ekintzak garatzean datza. Eta horrek, txiki zein handi, erabat motibatzen gaitu.

Motibazioa, ondorioz, giza jardueraren arrazoi nagusienetariko bat dugu. Motibazioa

ekintzarako zio edo zergatia dugu. Zioa, jarduera bati hasiera zergatik eman diogun azaltzera datorren energia iturri gisa gertatzen da. Zioak jarduera hori, behin hasitakoan, mantendu egiten du eta ondoren, alde aurretik lortu nahi izan diren helburuak lortzera garamatza.

Ikasturtea, bere ibilbideari hasiera eman eta egun gutxira, dinamika berri baten abiatuta ikusiko dugu, bere iparrorratza zuzen jarri eta ikasturte bukarara arte tinko eutsiz. Bitartean, uste baino arinago, etorriko dira gorabehera ugari, arazo larri, egonezin garbi, eta oro har, ikasketa prozesuak berenaz dakartzan bideratu beharreko egoera nahigabetsuak. Horrelakorik gerta ez dadin edota ahalik gutxien gerta dadin, idatzi honetan ikasketetarako motibazioa hobetzeko ondorengo jarduerak aipatu nahi ditut, bakoitzaren garapena hurrengo aleetan egitearen kaltetan gabe.

Eskola porrotaren arrazoi garrantzitsuetariko bat ikasketetarako motibazio urrian datza. Ikasleen ahotan sarritan entzun izan ditut, batez ere nerabezaroan direnengandik “zergatik ikasi, gero langabezia egoeran egoteko” “ikasketek ez dakarte giza-arrakastarik” eta antzerakoak. Beraz, zer egin behar da motibazioa, bakoitzak berea aurkitu behar duela garbi adieraziz, hobetzeko?

Lehenengo, helburuak ezarri behar dira. Ikasketak behar bezala arteztu eta bide onean izateko, helburuak ezarri behar dira eta helburu horiek lortzeko bitartekoak diseinatu beharra dago. Helburuek, edozein kasutan, egingarri eta hurbilekoak izan behar dute. Asmo handiko helburuak ezarri eta lortu ezin izateak hondamendia eta

motibaziorik eza baino ez dakartza. Ikasturte guztian zehar ikasleak ikasketetarako izan dezakeen interesa mantentzeko gai izan litezkeen helburu txikiak dira ezarri behar direnak. Helbururik gabe ikastea, zertarako ikasten den edota zergatik ikasten den jakin gabe ikasten aritzea edota gurasoek ikastetxera igorri izateak eraginda ikastea, egoera erabat desmotibagarrian jardutea dakar eta, ondorioz, eskola arrakastarik horrela izatekotan, maila psikologikoan energia gastu ikaragarria eginez baino ez litzateke lortuko.

Bigarren, teknika aktiboak erabili behar dira. Teknika hauek aipatzean, ikasleak ikasgai lantzean erabili behar dituen baliabideez -azpimarratzea, eskematizazioa, laburpena, ikasgai azaltzen diren xehetasunen inguruko galderak norbere buruari egin eta erantzuten saiatu, xehetasun osagarriak lortu, informazio iturri desberdinetara jo, etab-ari gara. Teknika horiek bikain azaldu eta irakatsi behar zaizkie ikasleei, egokitasunez nola burutu behar diren jakin gabe egiten saiatzeak denbora alferrik galtzeaz gain ezer gutxi lortzea baitakar. Gabezia ika-

ragarria izaten dute ikasleek teknika horiek aplikatzean, ikas-prozesua erraztu eta guztiz erakargarri egiteko urratsak ikastetxeetan irakatsi ez izanak eraginda. Aipatutakoaren ondorioa, ikasle bakoitzak ikasketei inolako metodologiarik gabe heltzen diola ikustea da eta... hori ez da bidea emaitza bikainak lortzeko.

Gurasoek horren jakitun izanda, lehenbailehen, ikasten ez jakiteak sortutako arazoak dimentsio handi eta larriagoak hartu baino lehen, irtenbide egokia eman beharko liekete seme-alabaren ikasketa gabezia horiei, ikasleak berak bideratuko dituenaren uste ustean, sarri gertatzen den bezala, izan beharrean. Zoritzarrez ikasleen ikas-teknikei ez zaie garrantzirik ematen eta teknika-rik eza nabarmena izan arren ikasgaiak gaintzen badira, guztiok lasai. Uste okerra. Ikas-teknika egokirik ez izana, lehenago edo geroago, bere izaera gordinean azaltzen da, inolako alde aurreko abisurik gabe. Larritasun gorriak sortzen dituen, eta horretan eskarmentu handia dugu PRAKAGORRIIn, beranduegi izaten da arazoa handiegi bihurtzen baita, tentsio handiak sortuz, ikasturteari zuzen eraginez, eta egonezin ugari sortuz. Ikasten jakiteak, ikasten jardutean ikasleak inplikazio handiagoa izateaz gain ikasketaren eta oroitzearen hobekuntza nabarmena dakartzio, ikasketek ekiten jarraitzeko motibazioa maila jasoagoan ezarriz.

Hirugarren, garrantzitsua da oso, ikas-ohitura egokiak eratzea. Igarotako astelehenez, ikasle baten aitak informazio es-

ke deitu zigun PRAKAGORRIra hamabi urteko bere semearentzako irakurketa ikastaroa egin nahi zuela esanez. Irakurketa ikastaroa ezin egin izango du, arazo larri bat sortu baitio aitak semeari: aste guztiko arratsaldeko ordurik hoberenak kirol jarduerak egitera emango du. Errakuntza larria.

Etixerako lanak, egoera horietan, kirola egin ondoren egitea izaten da ohikoena baina ez modurik egokiena eta jarrerarik bikainena. Nekea bere gordintasunean azaltzen denean, (eta kirola egin ondoren beti azaltzen da) ez dago maila intelektualean egokitasunez jarduterik, nekea ez baita, daki-gun bezala, buruaren aliatu onena. Ikasleak, arratsaldeko ordurik hoberenak (seietatik zortzietarako ordu tartean adibidez) ikasketak egunero eskatzen duen ahalegin intelektuala egiten eman beharko lituzke.

Laugarren, oso garrantzitsua da egunero ordu berean eta gela berean ikasten ohitzea. Horretara egin ezean ikasi beharreko horretan jarritako arreta bera ere ez da egokia izaten eta, ondorioz, kontzentrazioa ere oso kaxkarra izaten da. Egunero ordu eta toki berean aritzean ikas-ohitura egokiak eratzen eta ezartzen dira. Horrela jardunaz eta behin ohitura horiek sortutakoan, ikasten hastea ez da lan neketsu eta aztoragarri bilakatzen.

Ikasturtea abiarazia dugu eta indarberrituz abiatzea da ikasleek izan behar duten jarrera naturala. Ikasturte berriak, besteak beste, jakintza maila jasoagorako bideak azaltzeaz gain luze joko du, bitartean gorabeherarik sortuz. Egoerak egoera, motibazioa maila jasoan izatea ez da ekintza erraza izaten eta, ondorioz, motibazioa gainbehera etor ez dadin, dagozkion teknika eta neurriak hartu behar dira, sustatu eta elikatze aldera. Ale honetan teknika batzuk aipatu dira. Datorren alean gainontzekoez arituko gara aplikagarri izan ditzazun asmoz.

Gorka Aurre
 prakagorri@prakagorri.eus

“Eskola porrotaren arrazoi garrantzitsuetariko bat ikasketetarako motibazio urria izatean datza”

“Irakurriz hazten laguntzeak, pentsatuz bizitzeko gaitasuna ematen du”

Gorka Aurre



Prakagorri
 reading skills

Tel.: 944 915 763
 prakagorri@prakagorri.eus

Ibon Carreto | Durango, 1984 | Zornotza Saskibaloi Taldeko jokalaria ohia

“Zornotzatik nire irteera gertatu den modua nahiko gogorra izan da niretzat”

Zornotzan jokalaria erreferentea izan da, zaleen kutuna; orain etapa berria hasiko du Bilbon

➤ **SASKIBALOI** Joseba Derteano Ibon Carretok sei urte eman ditu Zornotzan. Jokalaria erreferentea izan da urte askoan, taldeko ikurra eta zaleen kutuna. Marka pertsonal harrigarriekin taldeari Zilarrezko Ligara igotzen lagundu zion lehenengo, eta maila horretan finkatzen ondoren. Aurten, Zornotzatik Bilboko Escolapios taldera batu da. Minduta nabari da, Zornotzako zuzendaritzaren partetik ez duelako inolako deirik jaso. Irteeragatik baino, irteerako moduagatik dago minduta.

Zelan gertatu da zure irteera Zornotza saskibaloi taldeetik? Tira, inork ez dit taldean jarraitzea eskaini. Ez dira nigaz hartuemanetan ezertarako jarri, eta, beraz, ez dut eurekin berbarik egin.

Edozelan ere, taldea uztea edo saskibaloia beste era batera hartzea erabakita zeneukan? Beste talde batzuen eskaintzak jaso ditut, baina nire ideia apur bat finkatzea zen, eta saskibaloiaz hemen inguruan (Bilbon) gozatzea. Bizitza normal batera bideratzea, labor esanda.

Zornotzan eta Zilarrezko Ligan gaitza zen normaltasun hori lortzea? Denbora asko eskatzen zuen beharbada? Denbora gehiegi eskatzen zidan. Asteburu librerik ez duzu, ordu asko han eta hemen... Horretara ohituta nago, egia esanda, baina urte asko dira horrela, eta etapa berria hastea behar nuen.

Buruan ideia hori zeneukan arren, zuzendaritzaren aldetik deirik jaso ez izanagatik minduta sentitzen zara? Ba, taldean eman ditudan sei urteetan klubaren alde egindako denaren ostean, gutxienez esker

oneko edo antzerako dei bat ondo egongo zen, bai.

Irteera baino, irteerako modua da mindu zaituena. Hau guztia zelan garatu den, eta nire irteera gertatu den modua nahiko gogorra izan da niretzat, bai.

Zornotzako zure etapa bitan banatu daiteke. Maila handiko lehen lau urteak eta hainbeste protagonismo gabeko azken biak, hein batean lesio baten ondorioz. Azken urteko aurrendenboraldian, Euskal Kopako partidu batean hatzeko hezur-haustura izan nuen, eta hile eta erdi geldirik egon nintzen. Errekupe-ratu ostean, pubiseko osteopatia agertu zitzaidan, oraindino pairatzen nabilena.

Lesio mota horiek gaiztoak izaten dira, ezta? Erabat errekupe-ratzeko gaitzak. Bai, denbora batean nire burua behartzen eta behartzen aritu nintzen, eta heldu zen une bat hankarik ere ezin nuena jaso. Ondoren, probak egin, pubiseko osteopatia zela jakin, eta errekupe-ratzeari ekin nion. Orain neure kontura darrait errekupe-ratioagaz.

Lehenengo urteetan une go-goangarriak ere bizi izan dituzu. Egia esanda, bai. Hau guztia amaitu den moduan amaituta ere oroitzapen onekin, gozatu dudana denagaz, ikasi eta irakatsi dudana, zaleen partetik jasotako berotasunagaz... horregaz guztiagaz geratzen naiz.

Mailarik oneneko urteetan maila handiagoko taldeetara joateko eskaintzarik izan zenuen? Bai, hainbat eskaintza izan nituen, Urrezko Ligatik esatera



ko. Diru askogatik Frantziara joateko aukera ere izan nuen. Azkenean, Zornotzan geratzea erabaki nuen, kluba maite nuelako eta gustura nengoelako.

Zornotza S.T.-ko lagun talde bat Herri Kantxa 18 deitzen da. Zenbakia zure kamisetarena da. Urteetan jokalaria erreferentea izan zara zaleentzat. Zelan eraman duzu hori? Zaleen berotasun hori sumatu izan dut, bai, eta indarra zein konfiantza eman dizkit. Baina,aldi berean, erantzukizun handia ere bada, norbera egon ezik taldeak sufritu egiten duela eta antzerako sentipenak izatea. Beharbada, azkenengo urteetan gutxiago igartzen zen hutsunea, apurka gero eta talde kompletoagoa osatu zelako, baina hasieran... oso pozik nago urte haue-tan egiteko aukera izan dudana, baina erantzukizun handia sentitzen nuen.

Sare sozialetan idatzitako agur gutunean eskerrak eman zenez, zure zalegoari urteetan emandako berotasunagatik. Zer gutxiago eurei esker ona adieraztea baino! Azkenean, ni eurentzat izan naizena, eta eurak niretzat izan direna... alde bietarako hartueman izan da.

“**Klubaren alde egindako denaren ostean, gutxienez esker oneko edo antzerako dei bat ondo egongo zen”**

Nik idatzitako mezu horren ostean jasotako erantzunek negar malkoren bat ere eragin didate.

EBAtik Zilarrezko Ligarako igoera, maila horretan ligako saskiratzaile nagusia izan zinen denboraldia, 61eko balorazioa izan zenuen partidu hura... Zein lorpenekin geratzen zara? Denekin geratzen naiz. EBA mailako partidu batean 61eko balorazioa lortu nuenean Marca egunkarian irten nintzen. Igoera lortzea ere ederra izan zen, jakina, eta beste hainbeste Zilarrezko Ligan saskiratzaile nagusia izatea. Orduan, Espainiako B selekzioaren partidu baterako deialdian sartu nintzen.

Urte horietan lortu zenuen maila ikusita, gero zer gertatu zen taldean protagonismoa galtzeko? Lesioen ondorioa bakarrik izan zen?

Azken denboraldian azpijoko moduko bat sentitu nuen klubaren partetik. Ez dakit azpijona egin gura zidaten ala zer. Ez nuen oso ondo ulertzen. Azkenean, konfiantza hori kentzen badizute, errendimenduan ere eragiten du.

Estatu mailako ligatik Bizkaia mailako batera igaro zara. Ia erretiroa ematen du. Etxetik gertu dago, taldekide ia denak ezagutzen ditut eta lagunekin eta saskibaloiaz beste modu batera gozatzeko modua izango da. Eskakizuna ez da berdina izango, eta beste filosofia batez biziko dut aurrerantzean saskibaloia.

Tabirako-Baquén hasi zinen saskibaloian. Sarritan gertatu zen da, kanpoan hainbat urte eman, eta azken urteetan sorlekura itzultzea. Egin zidaten Tabirakora itzultzeko eskaintza, baina entrenamenduetarako etengabe-ko joan-etorrietatik irten gura nuen. Orain, metroa hartuta, etxetik minutu bira ditut entrenamenduak. Edozelan ere, oraindik urte batzuk geratzen zaizkit saskibaloian, eta ez dut baztertzen Tabirako klubera itzultzea.

Euskadiko zesta torneo beteranoenetakoak zapatuan hasiko du aurtengo aldia Durangon

San Fausto Zesta Txapelketaren 33. aldia asteburuan hasi eta jaietan amaituko dute



Zapatu arratsaldero eta domeka goizero jokatuko dituzte partiduak Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.

> ZESTA J.D. Orain 33 urte antolatu zuten, lehenengoz, San Fausto zesta txapelketa Durangoko jaien harira. Peña Ezkurdi elkarteak kideak aitzindariak izan ziren tankera horretako torneoetan.

Harrezkero, Peña Ezkurdik eta Durangoko Jai Alai klubak tradizioari eutsi diote, eta torneoak urte batean ere ez du hutsik egin jaietako hitzordura. Aurtengo aldia asteburu honetan hasiko dute.

Zapatuan, 18:30etik aurrera, Gernika-Hondarribiak eta Gasteiz-Berriozarrek neurtuko dituzte indarrak. Domekan, 11:30ean, Zumaia-Markina eta Mutriku-Lekeitio neurtuko dira. Aurrerantzean, asteburu-

ro jokatuko dituzte partiduak Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan, urriaren 15eko finalera heldu arte.

Aurtun 22 taldek parte hartuko dute, iaz baino bi gehiagok. Batetik, urte askoan ohikoa izan den Bartzelonako taldea berriro etorriko da, iazko parentesiaren ostean. Bestetik, Ipar Euskal Herriko Getaria herriak eta bertako zesta taldeak lehenengoz parte hartuko dute. Biarritzek, Bidartek eta Donibane Lohitzunek –iazko irabazleak– osatuko dute Ipar Euskal Herriko ordezkariak, eta Pauk eta Hossegorek Frantziakoa.

Gipuzkoa da ordezkari gehien izango duen probintzia, sei bikotegaz; zerrendan hurrengo Bizkaia dago, bostegaz, Nafarroa hirugaz eta Araba bategaz.

Durangoko Ezkurdi Jai Alai klubeko bikoteak hurrengo asteburuan jokatuko du. Oraindik erabaki barik dute bikote hori nortzuek osatuko duten.

ADITUAREN TXOKOA

GARAZI SAMPEDRO

Mendi lasterketa



Udaren azkena

Eguzkia moteltzen doan heinean, egunerokotasunak hartzen du indarra: lanera bueltatzea, kurtso berriaren hasiera edo entrenamenduak gogotsu hastea, besteak beste.

Mendiko lasterketetan aritzen garenontzat apartekoa izaten da udazkena. Atzerrian ez bezala, gure inguruan ez da lasterketa asko egoten udan. Iraila hastearekin bat, ordea, edozein herritan aurki dezakegu bakoitzarentzat aproposa izan daitekeen lasterketaren bat eta Durangaldea ez da salbuespena.

Mendi lasterketa mota ezberdinak daude: kilometro bertikaletatik hasi eta ultratara bitartean dauden distantziak beste ia-ia. 2008az geroztik, Atxondon bertan modalitate ezberdin bitan lehiatzeko aukera dago. Irailaren 17an Sorginen Lasterketa Axpen hasi eta bukatuko da, baina aurtun Anbototik igaroko dira lasterkariak, guztira 17 kilometro inguru osatuz.

Urriaren 8an, bestalde, IX. Anboto Kilometro Bertikala jokatuko da Arrazolan. Euskal Herriko espezialista onenak erakartzen dituen lasterketa leherkor hau norberaren mugak aurkituz gozatzen ikasten ari den edozein hasiberrirentzat aproposa izan liteke.

Azkenik, urriaren 23an maratoni erdian lehiatzeko aukera egongo da II. Urkiola Udazken Koloretan lasterketan: Durangoko Tabiratik hasita Atxarte zeharkatuz, gure bazter ederrez gozatzeko aukera paregabea.

Beraz, mendian korrika egitea gustatu eta lasterketako giro ona probatu nahi baduzue, hiru lasterketa paregabe eskura dituzue urtaro berria gogotsu hasteko.

Pradera Berrizen jokatuko den MPB sarian

> PALAGOMA M.Zuazubiskar Asteburu honetan nesken paleta txapelketako partiduak jokatuko dira Berrizburu pilotalekuan.

Zapatuan, 17:00etan hasiko dira Nesken Paleta Txapelketako MPB Sariak, eta hiru partiduz gozatzeko aukera paregabea egongo da.

Txapelketa honetako partidu nagusian Itsaso Pradera mallabiarrak jokatuko du, Etxaniz bikotekide duela, Iraxustabarrenaren eta Eizmendiren kontra.

Padel txapelketarako izen-ematea martxan

> PADEL J.D. Durangoko San Fausto jaien harira antolatzen duten padel txapelketak bosgarren aldia egingo du aurtun. Izen-ematea bi modutara egin daiteke: infor-padelzaleak@gmail.com helbide elektronikoaren bidez edo Durangoko igerilekuan izena emanda. Iaztik Ales Petralandaren oroimenezko txapelketa da.

Plaza mugatuak daude: gehienez, 32 bikote aritu daitezke maila bakoitzean: gizonetan (bi maila), emakumeetan eta mistoan. Mistoetako kopurua beteta dago dagoeneko. Gaz-

teetan, berriz, 16 bikote maila bitan banatuko dituzte: 10-12 eta 12-14 urtera artekoak.

Izen-ematea 15 euro da pertsonako kategoria bakoitzean; 20 euro kategoria bitan eta 5 euro gazte mailakoentzat.

Maila bakoitzean finalerdietara arteko partiduak asteburu berean jokatuko dituztela da aurtengo nobedade nagusia. Irailaren 16tik 18ra gazte mailakoak jokatuko dituzte; hurrengo asteburu bakoitzean, berriz, gainerako mailakoak. Finalak urriaren 22an jokatuko dira, San Fausto jaien azken zapatuan.

Bizkaia-Durango Madrid Challenge proban arituko da

> TXIRRINDULARITZA J.D. Espainiako Itzulia domekan amaituko da Madrilen. Egun horretako goizean, emakumeen txirrindularitza sustatzeko asmoz, iaz estreinatu zuten Madrid Challenge proba errepikatuko dute. Madril hiriarren barruan diseinatuak zirkuituan 18 talde lehiatuko dira, eta Euskal Herriak ordezkari bi izango ditu, horietako bat eskualdeko Bizkaia-Durango delarik. Iazko lehenengo aldian ere parte hartu zuten talde horretako neskek.

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK

Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017

katerin ardoak
iñaki uribe
saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetakoko menu bereziak
Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com



Gallastegi harategiak internet bidezko salmenta prozesua jarri du martxan

Gallastegi Harategiko jakiak internet bidez eskatu, eta 24 orduko epean etxeko atean jasotzeko aukera ematen du sistema berri honek

> GALLASTEGI Paul Bustindui Gallastegi familia 1955. urtetik dabil harategian lanean. Lehenbiziko harategia Zaldibarren zabaldu zuten, eta 70eko hamarkadan beste bat ireki zuten, Durangon. Haragi saltzaileak izateaz gain, ekoizleak ere badira. Mallabiko Zubitegi ustiatan hazten dituzte txahalak. Etiketadun produktuen aldeko apustuaren ondoren, azken urteetan modan jarri den internet bidezko salmentak egitera batu dira. www.gallastegiharategiak.eus atarian eskaerak egin egiteko aukera dago.

Noiz hasi zineten on line bidezko salmentekin?

Orain dela bost urte hasi ginen prozesuarekin, baina azken bolada honetan jarri ditugu martxan xehetasun guztiak.

Nola egiten da internet bidezko erosketak?

Behin gure atarian sartuta, atalka daude sailkatuta jakiak. Gure produktuez gain, ekologikoak eta Label etiketadunak ere badaude, besteak beste. Otzara gehitzen dira jakiak, ordainketa egin baino lehen. Bertan aukeratu, eta kreditu txartel edo paysafecard bitartez ordaindu daiteke.

Bidalketa Estatu osora egiten duzue, ezta?

Estatu osora, bai, baina Zaldibarrera eta Durangora bada, bidalketa gastuak doakoak dira. Bartzelonatik txuletak eskatu izan dizkigute inoiz.

“Jendeak nahiago du erosketetan ematen duen denbora aisialdirako edo familiarentzako erabili”

“12:00ak aurretik eskatutako jakiak hurrengo egunean izan ditzake erosleak etxean”

Zenbat denborara jasotzen dira internet bidez eskatutako produktuak?

12:00ak aurretik eskatutako jakiak hurrengo egunean izan ditzake erosleak etxean, Estatuko edozein lekutan. Beraz, jakiak fresko-fresko heltzen dira.

Zeintzuk dira produkturik arrakastatsuenak?

Txahal produktuak asko eskatzen dira. Betidanik guregana

etorri diren erosle askok orain kanpotik eskatzen dizkigute txahal txuletak edo bildotsa.

Harategien artean, berrikuntza da on line denda zabaltzea.

Aurrenetarikoak gara. Oso baliabide eroso da, baina jendeak horren berri izan behar du. Promozioa egiten gabiltza, interneteko gure ataria ezagutarazteko.

Zelan ikusten duzue internet bidezko denden etorkizuna?

Azken finean, denda guztiek egin beharreko jautzia da. Erosle gazteek ez dute ohitura handirik dendetara joateko, eta tresna honegaz errazago dute okela erostea. Jendeak gero eta gehia-



go baloratzen du denbora, eta erosketak internetez eginez gero, denbora aurrezten du bezeroak. Beraz, edozein adinetako pertsonak erabil dezaketen arren, erosotasunari begira gazteei zuzendutako ekimena dela esan daiteke.

Asko nabaritu izan duzue jendearen erosotasunerako joera hori?

Bai, jendeak nahiago du eroske-

tak egiten ematen duen denbora aisialdirako, atsedenaldirako, edo familiarekin egoteko erabili. Dendarik denda ibiltzeko ohitura galduta dago gaur egun. Gero eta joera handiagoa dago gauzak etxetik egiteko, arlo guztietan. Guk ere bide horretatik jo behar dugu, eta gauzak ahalik eta erosoan jarri bezeroei. Bali-teke hasieran apur bat kostatzen da, baina jendeak ondo hartuko duelakoan gaude.

GALLASTEGI
www.gallastegiharategiak.eus
 Antso Estegiz, 1 · 946 812 247 · DURANGO
 Zalduosolo, 8 · 946 827 038 · ZALDIBAR

Larreako zelaiko obrei esker errugbian jokatu ahal izango da

Larreako kirol instalazioen hobekuntzara 400.000 euro bideratu dituzte



Bi hilabete eta erdi iraun dute Larreako kirol instalazioetako obrek.

> ERRUGBIA Jone Guenetxea Zornotzako Larreako instalazioetan egindako hobekuntzei esker errugbian aritzeko aukera izango da hastear den ikasturtean. Udal arduradunek azaldu dutenez, Larreako zelaiaren azken belaunaldiko belar artifiziala jarri dute. Horrez gainera, futbol 11ko ate mugikor berriek errugbian jokatzeko aukera ematen dutela azaldu dute. Era berean, belar artifizial

berriaren azpian drainatzeko geruza bat jarri dute. Jokalekuko ura bi alboetako kanaletetara bideratzea izan dute helburu.

Bestalde, futbol 7ko zelaia eraiki dute. Beraz, orain kirol horretara bideratutako hiru zelai dituzte Zornotzan.

Luzera-jauzia berrituta

Luzera-jauzia praktikatzen duten kirolariek ere nabaritu dute hobekuntzak. Izan ere,

salto egiteko pista handitu eta hobetu egin dute, baita harea-esparrua ere, besteak beste.

400.000 euro inguruko inbertsioa egin dutela azaldu dute udal ordezkariak. "Lanak aurreikusitako epean egin dira, bi hilabete eta erdian".

Hobekuntzak 6.800 metro koadroko eremuan egin dituzte: kirol ekipamenduan, luzera-jauziaren gunean eta zelaiaren instalazioetan.

Aramendia errepideko Europako txapelketara

Espainiako txapelketan domina bi lortu zituen CAF Transport Engineeringeko txirrindulariak

> TXIRRINDULARITZA M.Z.

Iurretako CAF Transport Engineering taldeko Maialen Aramendia nafarra Europako txapelketa lehiazteko hautatuen artean dago. Errepideko lasterketa irailaren 16an jokatu du Bretañan (Frantzia), eta 68,9 kilometroko ibilbide bati egin beharko diote aurre.

Ramontxu Gonzalez Arrieta Espainiako selekzioko hautatzailearentzat ez dira oharkabean igaro Aramendiaren lorpenak.

Iturmendiko txirrindulariak denboraldi bikain honi amaiera borobila eman dio. Horren adibide dira, esaterako, joan zen asteburuan Reinosan jokatuako errepideko Espainiako txapelketan lortutako brontzezko bi dominak.

CAF Transport Engineeringeko txirrindulariak erlojuaren aurkako proban eskuratu zuen lehenengo domina, irabazlearengandik 33 segundora geldituta. Bigarrena, berriz, errepideko lasterketan lortu zuen.



Alonso, Martin eta Aramendia Espainiako txapelketako podiumean.

ARGAZKI
lehiaketa
KI 2017

DURANGALDEA
IRUDITAN

Durangaldeko hamahiru herrietako argazki sortak aurkeztu beharko dira irailaren 30a baino lehen. Informazio gehiago: anboto.org webgunean.

SARIA **500€** Argazki sorta onenari

anboto 
komunikabideak



aek euskara
praktikoa

**%100
AFEKTIBOA**

Eman izena

Euskalduntze maila guztiak (A1, A2,B1,B2,C1)

4. maila (C2)

on line ikastaroak

Autoikaskuntza (tutoretzatan oinarrituta)

Durango / Iurreta / Izurtza/Mañaria · 94 681 73 49/607 159 205 · abarrak@aek.eus

Elorrio /Atxondo · 607 600 901 · abizari@aek.eus

Zornotza · 607 151 917 · zornotza@aek.eus

Berriz · 662 966 827 · berriz@aek.eus

Zaldibar · 662 966 827 · zaldibar@aek.eus

Abadiño · 662 966 827 · abadino@aek.eus

DIRU-LAGUNTZAK

EUSKO JAURLARITZA:
mailaren bat egiaztatuz gero

BIZKAIKO ALDUNDIA:
deskontu-bonuk.

UDAL GUZTIEK

> Inmobiliariak



ETXEBITZAK ALOKAIUAN

DURANGO. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 550€-tik hasita.

ETXEBITZAK SALGAI

DURANGO. Tabirakalea. 3 logelako etxea, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira. Eta garaje itxia.

DURANGO. Errotarixuena Atiko zoragarria 3 logela, bi komun, bi terraza zabal, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, eta garaje itxia lau kotxe sartzeko. Ikusgarria.

DURANGO. Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 komun, sukaldea, egongela balkoiarekin eta despentsa.

ATXONDO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, hiru balkoi. Horrez gain, garaje itxia.

ELORRIO. 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea balkoiarekin, komuna, eta garajea itxia.

DURANGO. -Kalebarria, 3 logelako etxebizitza, sukaldea, egongela, eta komuna. 120.000€.

DURANGO. ARTEKALE. Azken etxebizitza, bikoak, trastelekuarekin. Prezioak 165.000€ -tik hasita.

LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

ABADIÑO. Aita Letona. Etxebizitza ederra 2 logelarekin, komuna, sukaldea, egongela, garajea eta trasteleku.

ABADIÑO. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, komuna, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trasteleku.

DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, komuna, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trasteleku.

LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO. 1.000 m²-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitzeko baimenarekin. Zonalde egokia.

BERRIZ. 10.000 m²-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitzeko lursaila, 1.000 m². Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA. Txalet bifamiliarr bat eraikitzeko lursaila, 3.000 m² inguruko azalerarekin.

AMOREBIETA. LARREA. 27.000 m²-ko lursail ederra, dena partzela bakarrean.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO. GAZTELUA. Baserri ikusgarria, arku eder batekin sarreran, ekialdera begira, 20.000 m²-ko lursaila baserriaren ondoan.

BERRIZ. Txaleta 1.200 m²-ko partzelan, Abeletxe kalean. Hegoaldera begira. 4 logela, 3 komun, sukaldea, egongela, eta garajea.

ATXONDO. Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m²-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

BERRIZ. B^o Murgoitio. Bifamiliarr ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 komun, garaje bikoitza, 12.000 m²-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

MENDATA. Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berriztatuko. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkina, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatuko.

BERRIZ. Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Egokia landa-turismorako, landetxea. Ikuspegi ezin hobek.



ETXEBITZAK SALGAI

DURANGO



• Adosatua 2 solairurekin, sotoa eta teilatupea hobekuntza askorekin. **550.000€ / Neg.**

BERRIZ: ABELETXE



• Adosatu polita 3 solairutan banatua + sotoa, garajea 2 autorentzat eta txokoa. Igogailua jartzeko aukera. 60 m²-ko zelaia. **475.000€.** €

ELORRIO



• Baserria salgai, guztia berriztatuko. Igurria auzoan: 410 m²-ko etxebizitza (etxabea, lehenengo solairua, bigarren solairua eta teilatupea) 10.000 m²-ko lursailarekin (zelaia). **375.000€.** €

IZURTZA



• Etxebizitza 1377 m²-ko lursailan. 104 m²-ko bi solairu. Etxabea, gardena. Lehenengo solairuan 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Teilatu berria. **325.000€.** €

EUBA



• Arkotza: Lursail ederra, laua, 3.500 m²koa. Kokaleku zoragarria. Inguruan baserriak eta txaletak daude. Oso eguzkitsua eta leku zabalean. Etxebizitza familibakarra egiteko baimena du. Oinarrizko proiektua bane. **179.500€ /** Negozagarria. €

ABADIÑO



• Baserria salgai, berriztatuko Urkiolarako bidean. 465 m², 3 solairutan banatuta. 40.000 m²-ko lursaila inguruan. **150.000€** €

www.inmoduranguesado.com



AUKERA

- TABIRA. 2 Logela. Komuna. Egongela. Dena berriztatua. 115.000€.

- KURUTZIAGA. 3 Logela. Balkoia. 130.000€.

- DURANGO 3 logela. Komuna. Egongela. Berogailua. 85.000€.

- MATIENA. K/ Laubideta. 4 logela. Komuna. Sukaldea. Egongela. Garajea aukeran. ORAIN: 145.000€.

- IURRETA. 3 logela. Igogailua. Berogailua. 115.000€.

ETXEBITZAK SALGAI

- ASTEPE: 3 logela. 2 komun. Egongela terrazarekin. Sukaldea. Esekkitokia. Trasteleku.

- MIKELDI. 3 logela. Komuna. Sukaldea-esekitokia. Egongela. Guztiz berriztatua. Eguzkitsua.

- PLATERUEN PLAZA. 2 logela. Komuna. Sukaldea. Egongela. Trasteleku. Eguzkitsua. Ikuspegi onak.

- OLLERIA. 100m². 3 logela. 2 komun. Sukaldea. Esekkitokia. Egongela. Terraza. Ganbara eta garajea. 265.000€.

- J.M. ALTUNA. Erdialdean. Kapritxosoa 3 logela. 2 komun. Garajea aukeran. 206.000€.

- ABADIÑO. Txanporta. 2 logela. Komuna. Ganbara. Kalera ematen duen garajea. 130.000€.

- ELORRIO. (Plaza). 103 m². 3 logela. 2 komun. Sukaldea-egongela.

- ELORRIO. 3 logela. Komuna. Sukaldea. Despentsa, egongela, trasteleku. Ikuspegi onak. Eguzkitsua. 129.000€.

- F.J. ZUMARRAGA: Apartamentua. Erdi berria. Bizitzera sartzeko moduan. 155.000€.

- M. TORRE. 134m². 4 logela. 2 komun. Sukaldea. Egongela terrazarekin. Trasteleku. 2 garaje. 270.000€.

- IZURTZA. 2 logela. Komuna. Egongela. Bizitzen sartzeko prest. 85.000€.

- IURRETA. Maspe. 3 logela. 110.000€.

- TROMPERRI. 4 logela. 2 komun. Egongela. Ganbara eta garajea. Txoko komunitarioa. 243.900€.

- KOMENTUKALE. 4 logela. Komuna. Egongela. 125.000€.

- F.J. ZUMARRAGA. 100m². 4 logela. 2 komun. Ganbara eta garajea. 236.000€.

- IURRETA. ELIXALDE. BERRIA ESTREINATZEKO. 100m². 2 logela. 2 komun. Sukaldea Esekkitokia. Egongela terrazarekin. Ganbara, eta garajea itxia. 245.000€.

- MIKELDI. Etxebizitza altua. Erdi berria. 3 logela. 2 komun. Egongela. Sukaldea esekitokiarekin. Trasteleku. Garajea. 270.000€.

- EZKI. 2 logela. Komuna. Sukaldea. Egongela. Trasteleku. Zelaiarekin. 170.000€.

- AMOREBIETA. 70 m². 2 logela. Komuna. Berritua. 160.000€.

- DURANGO. ATIKOA. 35m²-ko terrazarekin. 2 logela. Komuna. Egongela. Ganbara eta garajea.

- ZALDIBAR. Iturritxo. 3 logela. Komuna. Egongela. 2 terraza. Igogailua. 140.000€.

- ZUMALAKARREGI. 65 m². (Bulegoa izateko egokia).

LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIUAN

- F.J. ZUMARRAGA. 114m². SALGAI. 200.000€.

- IBAIZABAL. 50m². Guztia jarrita. 500€.

- KOMENTUKALE. 50 m². Guztia jarrita. 85.000€.

- IBAIZABAL. 55 m². Guztia jarrita. DENA ERAKUSLEIHOA da. Alokairua/ Salmenta.

- ERDIALDEAN. 228 m². Salmenta. 182.400€ (saltzeko aukera. Negozioa.)

- DURANGO. TABERNA martxan. 95m². 186.000€.

LOKALAK ETA ETXEBITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.
www.inmoetxetxo.com

**ALOKAIUAN
ETA SALGAI DITUZUN
HIGIEZINEN BERRI
EMAN NAHI
AL DUZU?**



**Anbotok tarte hau
eskaintzen dizu**

Informazio gehiagorako:
Tel.: 946 217 902
publi@anboto.org

anboto.iragarki**labur**rak.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/NEGOZIOAK	7 AISIA/KIROLA
4 DEHETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzat - Erregistratu www.anboto.iragarkiaburak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: anboto@anboto.org.

Paperean, ordainduta: Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonon.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Berriz. Etxe ederra herri barruan, kiroldegiaren eta eskolaren aurrean. Oso eguzkitsua da, eta bista zoragarriak ditu! la amaituta dago. Sukaldea, jangela, egongela, 5 logela, 3 bainugela, 2 kotxerentzako gara-jea, eta argitasun handia duen espazio handi bat, txoko edo lan egiteko gune gisa erabiltzeko modukoa. Tel.: 651-34 80 08.

ERRENTAN EMAN

Zaldibar. Apartamentu bat alokatzen da Zaldibarren, bikote batentzako aproposa. Interesatuta bazaude deitu telefono honetara: 664-10 27 91.

LOKALAK

ERRENTAN HARTU

Durango. Lanerako leku bat eskaintzen da Durangoko San Inazio auzoko coworking batean ingurumena, diseinua, ingeniari eta tankerako alorretan lanean dabilen jendearekin espazioa konpartitzeko. Prezio ona, giro atsegina eta euskalduna. Urtebeterako konpromisoa eskatzen da. Interesa duenak deitu edo whatsappetik idatzi: 659-68 02 17. Posta: saioazuazu3@hotmail.com.

ERRENTAN HARTU

Iurreta. Iurretan pisua alokatu gura dut, kaskoan. Urrian edo azaroan sartzeko. Tel.: 660-13 95 54.

PISUA KONPARTITU

PISUKIDE BILA

Durango. Aldi baterako logela alokatzen dugu Durangon. Hiru logelako etxebizitza da, eta altzari guztiak ditu. Etxeko giroa lasaia eta atsegina da. Elkarren inguruko informazio gehiago izateko, idatzi. Tel.: 695-75 23 43.

GARAJE / TRASTEROAK

ERRENTAN EMAN

Durangaldea. Askatasun Etorbidea 20 zenbakian garajea alokatzen da. Tel.: 628-84 31 18.

GAINERAKOAK

Durangaldea. Lursail baten bila nabil ortua jarri eta barazkiak landatzeko.

Ahal bada doan.
Tel.: 666-69 10 03.

Teknologia

GAINERAKOAK

EMAN

Bidali zure ordenagailua. Zure ordenagailua hondatuta badago, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, jaso, konpondu, eta Federación Niños del Mundo elkartearen bitartez bidaliko dugu Boliviako eta Peruko ospitaleetara eta eskoletara. Tel.: 655-71 76 66.

Lana - negozioak

LAN ESKARIAK

ETXEKO LANAK

Durangaldea. Emakumea prest dago etxeko lanak egiteko esperientziaduna (garbitasuna, sukaldean aritzeko, umeak zaintzeko, eta abar.). Interesatuak deitu telefono honetara: 663-54 31 34.

PERTSONAK ZAINDU

Durangaldea (Bizkaia). Esperientziadun emakumea prest dago lanaldi osoan edo lanaldi erdian pertsona nagusiak zaintzeko. Garbiketaren ere jarduten dut. Tel.: 670-67 46 41.

Durangaldea. Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzeko edo garbitasunerako. Kanpoko edo barruko langilea. Orduka ere bai. Tel.: 602-81 24 42.

Durangaldea. Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzeko, lanaldi erdia, orduka... Gauzez ere lan egiteko prest. Tabernak eta bulegoak garbitzen ditut. Tel.: 648-20 03 70.

Durangaldea. Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzeko edo garbitasunerako. Kanpoko edo barruko langilea. Orduka ere bai. Tel.: 631-86 44 26.

Durangaldea. Pertsonak zaintzen edota garbiketaren lan egin nahi dut. Goizez eta arratsaldean orduka, edo gauzez ere bai. Esperientzia handia daukat. Tel.: 631 61 83 20.

Durangaldea. Nagusiak zaintzeko lana topatzen nabil. Kanpoko zein barruko langile

moduan, orduka edota asteburuetan ere bai.
Tel.: 634-74 85 31.

Durangaldea. Neska arduratsua prest dago garbiketaren lanak edo sukalde laguntzaile lanetan aritzeko. Esperientziarekin. Nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago. Tel.: 632-11 05 65

Durangaldea. Etxeko lanak egiteko edo garbiketaren lanetarako lan bila nabil. Barneko edo kanpoko langile moduan, edo

orduka. Erreferentzia onekin.
Tel.: 658-99 50 63.

Durangaldea. Esperientziadun neska arduratsua lan egin gura du. Pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketaren lanetarako prest. Barneko edo kanpoko langile moduan, edo orduka.
Tel.: 631-90 19 87.

LAN ESKAINTZAK

OSTALARITZA

Abadiño. Abarketeruena tabernak sukaldaria behar du.

Lanaldi osorako. Gutxienez bi urteko esperientzia izatea baloratuko da. Deitu 660 18 74 05 zenbakira edo bidali curriculuma abarketeruena@gmail.com helbidera.

Aisia - kirola

GAINERAKOAK

Katakumeak oparitzen dira. Katakumeak oparitzen dira. Tel.: 643-68 15 09.



DOAKO IKASTAROAK

2016-2017 IKASTURTEKO IKASTAROEEN ESKAINTZA

INFORMAZIOA eta IZENA EMATEA

www.ibaizabalikastola.org · 94 621 58 77 · ikastaroak@ibaizabalikastola.eus
IZENA EMATEKO EPEA: IKASTAROA HASI BAINO ASTE BAT LEHENAGORA ARTE

IKASTAROAK	ORDUAK	HASIERA DATA	
PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIA			
"Intervención en la atención higiénico alimentaria en instituciones" MF1017_2	70	2016ko irailak 26	HOBETUZ
Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren sustapena MF1026_3	50	2016ko urriak 17	HOBETUZ
"Atención Sociosanitaria a personas dependientes en instituciones" SSCS0208	370	2016ko azaroak 3	LANBIDE
Ur instalazioetako sorospena AFDP0109	290	2016ko azaroak 2	LANBIDE
Lan orientazioa eta lanbide Heziketako enpleguaren kalitatea sustatzea MF1446_3	30	2016ko abenduak 19	LANBIDE
Gatazken prebentzioa MF1039_3	70	2016ko abenduak 22	LANBIDE
Enplegurako prestakuntza-ekintzen programazio teknikoa MF1442_3	60	2017ko urtarrilak 30	HOBETUZ
Ur eremu Naturaleko sorospena AFDP0209	180	2017ko otsailak 20	LANBIDE
ESKAINTZA IREKIA			
Sare Sozialak enpresaren komunikaziorako tresna	20	2016ko azaroak 7	HOBETUZ
Hezkuntzarako google tresnak eta web aplikazioak	20	2017ko urtarrilak 11	HOBETUZ
Psikomotrizitatea nagusientzat	20	2017ko urtarrilak 12	HOBETUZ



Ibaizabal Ikastola Intxaurren kalea, 54. 48200 DURANGO

AGENDA

ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Irailaren 10ean, 23:00etan,
Elorriko Gaztetxean

Niña Coyote eta Chico Tornado + Baghdad

Elorriko Gaztetxean jaietarako prestatu duten egitaraua ixten duen emanaldia izango da biharkoa. Durangaldeko Baghdad taldeak joko du emanaldia, eta Niña Coyote eta Chico Tornado arituko dira ondoren.



Jaiak

:: ELORRIO

IRAILAREN 9an

12:00etan, hildako jubilatuen omenezko meza, Sortzez Garbiaren basilikan.

13:00etan, Piskolabisa Elorriko jubilatuentzat, Aldatsekuan.

16:00-20:00, haur parkea eta txu-txu tren, Urarkan.

16:00etan, truke azoka, txosnagunean.

17:00etan, areto-futbol partidua, kiroldegian (Elorriko Buskantza B-Abadiñoeko Txopoa kirol kluba).

18:00etan, CD Elorrio kadeteak-Eibar, Elizalden.

18:30etan, Duo Ciclon taldearen erromeria eta dantza txapelketa, Aldatsekuan.

19:00etan, Buskantza A mailakoen partidua, kiroldegian. Errugbi partidua.

19:30etan, Circortito kale animazioa, Urarkan.

20:30etan, Broken Brothers Brass Band, Urarkan.

22:00etan, LII. Idi proba txapelketa, probalekuan.

22:15etan, suzko zezena, plazan.

22:30etan, Diamante Negro kontzertuan, Urarka.

23:00etan, argazki lehiaketaren sari banaketa. Kontzertuak eta koktel bereziak.

00:00etan, Summum Art, Gaztetxean.

IRAILAREN 10ean

08:00etan, Sukalki Eguna, Aldatsekuan.

Goizean, CD Elorrio-Gernika, Elizalden. 3R Azoka, Berrio-Otxoan.

12:00etan, umeentzako tailerrak, txosnagunean.

12:00-14:00 eta 17:00-20:00, haur parkeak.

16:00etan, Buskantza-Mendibeltz, kiroldegian.

17:00etan, taberna ibiltaria, Aldatsekua-Urarka.

17:30etan, karrozen jaitsiera, Tukakukada batukadagaz, Aldatsekuan.

18:00etan, txokolatada, plazan.

18:30etan, Oihan Vegaren disko festa, plazan.

19:00etan, Herriko DJak, txosnagunean.

21:00etan, Kabaret Moc, Arriolan.

22:00etan, LII. Idi proba txapelketa.

22:15etan, suzko zezena, plazan.

22:30etan, Deabru beltzak, plazan.

22:45etan, Oihan Vegaren disko festa, plazan.

23:00etan, Araciel taldearen emanaldia, Urarkan. Baghdad eta Niña Coyote eta Chico Tornado, Gaztetxean.

00:00etan, DJak, txosnagunean.

IRAILAREN 11n

Goizean, 'Elorriko kulturak dasta ditzagun' elkartean jaialdia, San Pioko aterpean.

13:00etan, herri kirolak, plazan.

18:00etan, bertso saioa, Igor Elortza, Jon Maia, Oihana Bartra eta Oihana Iguaranegaz, Casajaran.

20:00etan, Tio Teronen Semeak-en dantza emanaldia, plazan.

IRAILAREN 12an

22:00etan, LII. Idi proba txapelketa.

:: IURRETA (Laixiar)

IRAILAREN 11n

12:00etan, meza, kofradien batzar orokorra, dantzariak, bertsolariak, eta bazkaria, Laixiarren.

Arratsaldean, umeentzako jolasak eta erromeria, Laixiarren.

:: IZURTZA

IRAILAREN 9an

19:30etan, tortilla txapelketa.

21:00etan, tortillen aurkezpena.

21:30etan, afari herrikoia.

23:00etan, Gauargi erromeria.

IRAILAREN 10ean

09:30etan, XXV. mendi bizikleta martxa.

19:00etan, XLIX Ezpadantzari eguna.

21:30etan, afari herrikoia.

IRAILAREN 11n

10:00etan, Kalejira Jaizalerekin.

11:00etan, meza Santo Tomas baselizan.

12:00etan, Mendigain dantza taldea, Santo Tomasen.

12:30etan, Gorriti eta bere abereak, Santo Tomasen.

13:30etan, Jesus Uriarteri omenaldia. Mendigain dantza taldea, eta bertsolariak.

17:00etan, mus txapelketa, Argintxu Elkartearen.



Musika

:: DURANGO

IRAILAREN 10ean

20:00etan, Gaztelako musika jaialdia, San Agustinen.

20:30etan, Durango Reggae jaialdia, Plateruenean.



Antzerkia

:: BERRIZ

IRAILAREN 16an

18:00etan, 'Letter', Olakueta plazan.

:: ELORRIO

IRAILAREN 10ean

21:00etan, 'Noc, un auténtico Vodevil', Arriolan.



Dantza

:: IZURTZA

IRAILAREN 10ean

18:30etan, Merinaldeko Ezpadantzari eguna.




Omenaldia

:: BERRIZ

IRAILAREN 11n

11:00etan, Frankismoko biktimei omenaldia, udaletxeko lorategian.



:: DURANGO | ZUGAZA

Gernika

- barikua 9: 22:00
- zapatua 10: 19:30/22:30
- domeka 11: 18:30/21:00
- astelehena 12: 21:00
- martitzena 13: 20:00

Tarde para la ira

- barikua 9: 19:30/22:00
- zapatua 10: 20:30/22:30
- domeka 11: 19:00/21:00
- astelehena 12: 18:30/21:00
- martitzena 13: 20:00

Blood father

- barikua 9: 19:30/22:00
- zapatua 10: 20:30/22:30
- domeka 11: 19:00/21:00
- astelehena 12: 18:30/21:00
- martitzena 13: 20:00

Cuerpo de élite

- barikua 9: 19:30
- astelehena 12: 18:30

El principito

- zapatua 10: 17:00
- domeka 11: 16:30

Mascotas

- zapatua 10: 16:30/18:30
- domeka 11: 16:30

Ice Age. El gran cataclismo

- zapatua 10: 16:00/18:30
- domeka 11: 16:30

:: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

Gernika

- barikua 9: 20:15
- zapatua 10: 19:30/22:00
- domeka 11: 20:00
- astelehena 12: 20:15

IRAILEKO AGENDA



11	IURRETAKO KOFRADIEN EGUNA Laixiar zelaian.
16	AITTE SAN MIGEL JAI BATZORDEA - SAN MIGEL JAIK 19:30 "Aurrera Begira 30. urteurrena" diapositiba emanaldia.
17	AITTE SAN MIGEL JAI BATZORDEA - SAN MIGEL JAIK 10:30 Erreka garbitu.
18	AITTE SAN MIGEL JAI BATZORDEA - SAN MIGEL JAIK ASKONDO 11:00 Iurretako herri lasterketa familiarra. 11:00 "Beldur barik" gunea. 11:00 "La Otra Mirada" gunea. 12:00 Umeentzako Herri Kirolak. 13:30 Errifa solidarioa.
21	ODOL EMOTEA - ASKONDO 16:30 - 21:00 Odol emotea.
23	AITTE SAN MIGEL JAI BATZORDEA - SAN MIGEL JAIK Argazki Rallya on line: "Iurretako jaiak. Lanak aurkezteko epea: Irailak 30erarte. 18:00 "Pirritx eta Porrotx" "Amalur" Olaburu Frontoian. Sarrerak Ibarretxe Kultur Etxean. 19:00 Teatro "Machomaris" antzerkia, Ziprintintzen taldea Ibarretxe Kultur Etxean. 19:30 Windchu Kaskoan. 22:30 Kontzertua kaskoan.

> BOTIKAK**BARIKUA, 9**
09:00-09:00**Gaztelumendi**
J.A. Abasolo 2 - Durango

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**ZAPATUA, 10**
09:00-09:00**Bazan Diaz**
Uribarri 5 - Durango

09:00-13:30

Gaztelumendi
J.A. Abasolo 2 - Durango**Sagastizabal**
Askatasun etorb. 19 - Durango**Balenciaga**
Ezkurdi plaza 8 - Durango**Campillo**
Montevideo etorb. 24 - Durango**Unamunzaga**
Muruetatorre 2C - Durango**De Diego**
Intxaurren 22. - Durango**Jaio-Olabarrieta**
Errekakale 6 - Elorrio**Bartolome**
Gabiola 2 - Berriz**Eguren, Isabel**
Trañabarren 15 - Abadiño**Guarrochena, Lide**
Bide Zahar 14 - Zornotza**Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza**Goiria, Mari Carmen**
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-14:00

Irigoien
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**DOMEKA, 11**
09:00-09:00**Irigoien**
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta**Guarrochena, Lide**
Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**ASTELEHENA, 12**
09:00-09:00**Unamunzaga**
Muruetatorre 2C - Durango**Goiria, Mari Carmen**
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**MARTITZENA, 13**
09:00-09:00**Sagastizabal**
Askatasun etorb. 19 - Durango**Goiria, Mari Carmen**
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**EGUAZTENA, 14**
09:00-09:00**Etxebarria**
Montevideo etorb. 2 - Durango**Goiria, Mari Carmen**
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**EGUENA, 15**
09:00-09:00**Navarro**
Artekalea 6 - Durango**Goiria, Mari Carmen**
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**> ZORION AGURRAK**✉ zorionak@anboto.org
eguziatzeneko 14:00ak arteko epeaErmodo, 11 · DURANGO - Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com

f Gozatu Gozategia

Zorionak, **Garazi (642. znb.)!** Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.**> Irailaren 4an Ekainek 2** urte egin ditu. Zorixonak, txapeldun!**> Oromiñoko Karmelo Iriondok** urteak bete ditu irailaren 6an. Zorixonak, aittitte!**> Anek 4 urte egin** zituen irailaren 4an. Zorionak etxekoan partez, batez be, Garazin partez.**> Danelek 3 urte eta Urkok** urtebete bete dabez. Zorixonak etxekuen partez gure txapeldun bixeri.**> Zorionak, Jon.** Irailaren 11n 10 urte egingo dituzu. Musu haundi bat denon partez. Aupa txapeldun!**> Zorionak tio eta etxeko txikiari.** Jokinek 3 urte bete zituen irailaren 6an. Domekan ospatuko dugu!**> Durangon bizi den Iker Vallejok,** 9 urte beteko ditu irailaren 12an. Zorionak laztana eta mosu potoloa etxeko danon partez.**> EGURALDIA**

ZAPATUA	27° / 15°	
DOMEKA	29° / 18°	
ASTELEHENA	35° / 21°	
MARTITZENA	33° / 20°	
EGUAZTENA	23° / 16°	
EGUENA	22° / 16°	

clínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarría

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

hitz
liburudenda

HITZ lekuz aldatu da!
Orain Artekaleko 23. zenbakian gagoz, lehengotik 20 metrora. Etorri bisitan!

artekalea, 23 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

“Ezin genuen sinetsi. Heldu eta han non ikusi genuen Ewan McGregor”

Edinburgon (Eskozia) estra moduan aritu da ‘Trainspotting’ filmaren bigarren partean grabazioan

> AKUILUA Aitziber Basauri
Industria diseinu ikasketak bukatuta, eta ingelesa hobetu guran, bost hilabete egin ditu Edinburgon (Eskozia) Ainhoa Iraolak. Bertan esperientzia berri bat bizitzeko aukera izan du: ‘Trainspotting’ filmaren bigarren partean, ‘Porno’ filmean, parte hartu du estra lez. Ferixa Nausikoetan murgilduta egon gara elorriarragaz, Parra tabernan lan egin ostean.

Pantaila handian ikusiko zaitugu laster, ezta? ‘Trainspotting’ filmaren bigarren partean...

Ez dakit! (barrez) Ea horrela den! Agertuko garen ez dakit, baina, kamera hortxe izan genuen. (Barrez)

Edinburgon bizi izan duzu esperientzia hau. Nolatan?

Ikasketak bukatuta, eta ingelesa hobetu guran, Edinburgon (Eskozia) bost hilabete egin ditut. Han nengoela, ‘facebook’ bitartez jakin genuen *Trainspotting* filmaren bigarren parte grabatu behar zutela diskoteka batean, eta estra bila ari zirela. Brometan hasi eta, azkenean, izena eman genuen.

Bi lagunegaz batera lortu zenuen txartela...

Hala da, bai. Goiatz Martinegaz (Berriz) eta Ane Belzagaz (Elgoibar) batera. Ez dut uste txartelik ateratzekoak zirenik, baina, 8.000 atsegite jaso zituen facebooken gertaerak. Guk lortu genuen geurea, oraindik ez dakit nola! (barrez). Jantzita nola joan behar genuen esan ziguten e-mailez. 80ko hamarkadako jantzita joan ginen.

Nolako izan da bizitako esperientzia?

Itzela! Film bat benetan nola grabatzen den ikustea, aktoreak hor dituzula... izugarria izan da.

Ewan McGregor aktore eskoziarra ezagutzeko aukera izan duzue... Horrelakoak ez dira egunero gertatzen...

Bai. Guk ere ezin genuen sinetsi (barrez). Heldu eta han non ikusi genuen!

Gerturazterik izan zenuten? Nolakoak dira Hollywoodeko izarrak?

Bai, apur bat bai. Oso jatorrak, naturalak... iruditu zitzaizkigun. Hurbilekoak. Zazpi ordu egon ginen diskotekan. McGregor ere mikrofonoa hartuta aritu zen han geundenok animatzen, laster amaituko genuela esanez. Zuzendaria ere oso jatorra! Aurrez aurre ere berdinak dira. Apur bat zahartuta, baina, berdinak.

Zazpi orduan, zenbateko tartea grabatzeko?

Seguru minutu bi baino ez direla izango. Diskoteka bateko eszena bat grabatu zuten.

Lehenengoz parte hartu duzue halako casting batean?

Txarteldun guztiok sartu ginen. Ez zen castinga izan. Baina, Londrestik eta beste hainbat tokitatik etorri zen jendea. Bagenekien Glasgow inguruan ari zirela grabatzen, eta bat-batean, facebooken Edinburgora zetozela ikusi genuenean, sekulakoa izan zen. 400 pertsonak parte hartu genuen azkenean.

‘Juego de Tronos’ telesaila dugu orain gurean. Bestelako castingetara joateko grina sortu zaizu zuri?

Edinburgon bizita, eta *Trainspotting* ikusita bai sortu zitzaidan 2. zatian parte hartzeko halako gogo. Baina, nik ez dut *Juego de Tronos* jarraitzen, eta ez zait grina hori sortu. Igual jarraituko banu...

Bidaiazalea zara, ezta?

Bai, bai. Ez naiz Ameriketara joan, baina, nahiko ibili naiz Europatik. Erasmus programaren bitartez Finlandian egon nintzen, eta etxerako buelta bidaiatuz egin nuen beste lagun batez: Estonia, Letonia, Polonia, Txekia, Italia... bisitatu ditut. Desiratzen nago berriro ere joateko. Orain argazkigintzari buruzko master bat egin behar dut Barzelonan. Datorren asteantza.

Couchsurfing-a erabiltzen duzu, ezta?

Bai. Edinburgon egin ere genuen. Gure etxera errumaniar bat, frantziar bat eta neska daniar bat ekarri genituen. Hiru egun ziren etxean.

Nik Italian, Estonian eta Polonian egin dut couchsurfing-a. Etxean sofa edo gela bat uzten dizute gaua pasatzeko, doan. Oso esperientzia ona izan dut beti. Oso gomendagarria da, dudarik gabe.



LAUHORTZA

AMAIA UGALDE

Kazetaria



Gure lanaz

“Ziurrenik ez duzue ezer sakonean landuko, ez zarete aditu bihurtuko, baina denetik ikasiko duzue”. Kazetaritza ikasten hasi aurretik horrelako zerbait esan ziguten Leioako fakultatean. Kazetari lanetan nenbilela, sarritan etorri izan zait momentu hura gogora.

Gerora ikasi genuen ez zegoela kazetaritza objektiborik, hori ez zela existitzen, eta ahalik eta zintzoen jokatzeko gure esku zegoela. Eta hori izan da, zintzotasun falta, kazetaritza egiten dutenengandik gutxien gustatu izan zaidana.

Esku artean duzun astekari honetan hainbat urte egin eta gero, kanpotik nabil orain idazten. Esan diezazuket, irakurle, Anboton kazetari izatea esperientzia ederra izan dela niretzat. Komunikabide txikia da, bai, baina Durangalderako eta euskararentzako garrantzitsua dela sinistu izan dut urteotan, eta horrela pentsatzen dut orain ere.

Herri txikien berri ematea, jende nagusiarekin zutabe honen alboko elkarrizketarako berbaldu luzeak edukitzea, pleno luze-luzeak “jatea”, herriko jaietan argazkiak ateratzea... Izerdia, ardura eta gozamen bizi izan ditut Anboton. Momentu historikoak ere bai; Gure Esku Dagoren giza-katea grabatzea edo Arkaitz Belloren heriotza osteko egun triste haiek tartean. Asko ikasi dut.

Anboton gure eskualdearen historiaren zatitxo bat idazten ibili garela esan daiteke, ez da horrela bada? Kazetariak oso kritikatuak izaten dira sarri gurean, eta batzuetan arrazoi guztiarekin egingo da kritika hori, baina lerro hauetatik kazetari txikien lana aldarrikatu gura dut. Txikiak izanda ere, gauza handia egiten duzue!

CEPA DURANGO HHI (Helduen Hezkuntza)
Doako irakaskuntza ofiziala




MATRIKULA

IRAKASKUNTZA ARAUTUA

- I. GRADUA
- II. GRADUA
- III. GRADUA (DBHko graduatua)

IRAKASKUNTZA EZ-ARAUTUA

- Gaztelania atzerritarrentzat.
- Goi mailako zikloetarako eta Unibertsitateko sarbide probak.
- Informatika ikastaroak.
- Ingelesa (hasiera-maila).

Matrikula egiteko ordutegia:

Astehenetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00. Ostiraletan: 09:00-13:00



MATRIKULA ZAITEZ
946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net

MATRIKULA-EPEA: irailaren 2tik 16ra